

Anjel Lertxundi, tradizioari begira modernitateari bizkarra eman gabe



Anjel Lertxundirekin egon gara, eta berak esandakoak dakarkizuegu barruko orrialdeetan. Lertxundi bere azken liburuei buruz aritu zaigu, eta, batez ere, *Otto Petteri* buruz, berau izan baita bere azken nobela, Alberdaniaren Ifrentzuak sailean buru-belarri sartu aurretik. Ifrentzuak sail horretarako lau liburu idazteko konpromezua hartu zuen, eta dagoeneko, horietako bi kalean dituzue: *Piztiaren izena* eta *Azkenaz beste*. Horretaz gain, beste zenbait gauza interesgarri izan ditu mintzagai Anjel Lertxundik: hizkuntzaren kalitatearen garrantzia, gaur egungo euskal literatura, bihar-etziko erronkarik handienak etab.

10. or.

Eskola Mapa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza nola ezarri

Eskola Mapa berria ahoz-ahoz ibili da azken aldian; izan ere, datorren ikasturtean jarriko da indarrean, eta oraindik ere hamaika zeresan eta eztabaida sortzen ari da. Baina, zer da Eskola Mapa? Nolako aldaketak ekarriko dizkio oraingo sistemari? Galdera horiei eta beste hainbati erantzun nahian prestatu dizuegu oraingoan erreportaia. Bertan,

Eskola Mapari eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari buruzko informazioa jasotzeko aukera izango duzue; Bizkaiko Gurasoen Elkarteko lehendakariaren iritzia jakingo dugu; eta, azkenik, Eneko Oregik, Hezkuntzako sailburuordeak, bere sailaren asmoen berri emango digu.

13. or.

Funtzionarioen mugikortasuna eztabaidagai

Martxoan izandako epai batek eragin handia izan dezake hemendik aurrera funtzionarioen artean. Epai horren arabera, funtzionarioak administrazio batetik bestera mugitu daitezke lanpostu-lehiaketa bidez. Egia da Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak jasotzen duela eskubide hori; hala ere, aitortu beharra dago mugikortasunari oztopoak besterik ez zaiola jarri orain arte. Eztabaidan parte hartu duten gehienek arabera, epai hau onerako izango da bai funtzionarioentzat bai herriarentzat bai administrazioarentzat. Dena den, oraindik badira zalantza eta galdera ugari, eta horiei erantzuten saiatuko gara barrualdean.

20. or.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

7

Patxi Zabaleta:

auzolana, ingurua zaintzeko eta maitatzeko bidea.

9

Felipe Juaristi:

Margarita, euskarazko ikasle saiatu bat, irakasle lanetan.

19

Juan Garzia:

puntuazioaren sintomatik sintaxiaren gaitzera.

Erakunde Autonomikoa



XXIV • UDAKO
IKASTAROAK



Administrazioko idatzizko komunikazioa euskaraz

	22	23	24	25	26
9:30	Komunikazioa <ul style="list-style-type: none"> • Komunikazio-motak • Komunikazioaren helburua • Diskurso-mota eta testu-generoa • Diskursoen funtzionamenduan sartzen direnak <p><i>Jexux Eizagirre, Rosa Mari Urrutia, Rosemiren Artola</i></p>		Gramatika arazoak <ul style="list-style-type: none"> • Ortografia: puntuazioa, letra larrien erabilera, siglak eta laburdurak, hitz elkarketa... • Morfologia: deklinabidea, aditza... • Sintaxia: gerundioen erabilera kaskarra, erlatibozko esaldiak... • Hiztegia... <p><i>Alberto Telleria Aitor Gorostiza</i></p>	Estilo arazoak <ul style="list-style-type: none"> • Betelanak: gehiegizko elementuak, perifrasiak... • Hizkera abstraktu eta inpersonala: nominalizazioa, 3. pertsona, tratamenduak, egitura pasiboak, hitz abstraktuak... • Joskera: atzera-karga, galdegaia, esaldi luzeegiak, ezezko esaldiak... <p><i>Alberto Telleria Aitor Gorostiza</i></p>	Testua zuzendu eta frogatu <p><i>Alberto Telleria Aitor Gorostiza</i></p>
11:00					Administrazioan gehien erabiltzen diren idazkiak Iragarkia, txostena
11:30					
13:00					Administrazioan gehien erabiltzen diren idazkiak Iragarkia, txostena
16:30	Lantaldean egin beharreko lana: arratsaldero taldeak osatuko dira — talde guztiek irakasle bana — eta goizean ikasitakoa landuko dute benetako testu baten aurrean.				
17:30	<p><i>Jexux Eizagirre, Rosa Mari Urrutia, Rosemiren Artola, Alberto Telleria, Aitor Gorostiza, Maite Iribar</i></p>				
17:30	Administrazioan gehien erabiltzen diren idazkiak Idazketa-irizpide orokorrak, ziurtagiria, eskabidea, gutuna, ofizioa, bilera-deia, akta				Lantaldean egin beharreko lana
18:30	<p><i>Maite Iribar</i></p>				



PAPER BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Joseba Lozano

Diseinu Grafikoa: Gabinorte

Zenbaki honetako lankideak:
Jon Agirre, Koldo Biguri, Lutxo Egia, Luis Elizondo, Santiago Etxegarai, Juan Garzia, GEU, Enrique Gorrotxategi, IZO, Felipe Juaristi, Josu Lartategi, Aintzane Leniz, Joseba Lozano, Patxi Zabaleta, ZENBAT GARA.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkarian argitaratutako artikuluak berridatz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritzirik.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

Legesko Gordailua: BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Adriano VI, 20. 01008 VITORIA-GASTEIZ. Tlf. 18 76 00. Faxa: 18 76 02.

PERTSONAIA



Martín Fiz: «bizitzak eta maratoiak elkarren antz handia dute»

Martín Fiz Euskal Herrian atletismoak eman duen korrikalaririk onena dugu seguruenik. Maratoian irabaz daitezkeen sari garrantzitsuenak lortu ditu: Munduko, Europako eta Espainiako (bi aldiz) maratoi txapelketak; bost aldiz Euskadiko Kros txapelketa; Espainiako markarik onena du maratoian... Egia esan, Joko Olinpikoetako domina (urrezkoa baldin bada, askoz hobe!) besterik ez zaio falta. Ametsa egi bihurtu nahian Atlantian ikusi ahal izango dugu abuztuaren 4an.

Noiz erabaki zenuen profesionala izatea?
1990ean, Espainiako Kros txapelketa irabazi nuenean.

Zer da zuretzat korrika egitea?
Nolabait esateko, nire salbazioa da; baina, ez salbazio ekonomikoa. Korrika egiteak estresari aurre egiten laguntzen dit, lasaitasuna ematen dit.

Lasterketa luzeetan bertute omen da pazientzia. Nolako zara zu?
Nire ustez, beste korrikalari batzuen urduritasunaren aldean, oso kirolari lasaia naiz. Agian, guztietan lasaiena.

Oraingoa bezalako une goxorik izango al duzu berriz ere?
Ez, ongi asko dakit orain gozaten ari naizen unea ez dela berriro errepikatuko. Urte batzuk barru, biltzen nauen hodei txiki honi agur esan, eta herritar arrunta baino ez naiz izango.

Nola bizi zara hodei horretan, Olinpotik hurbil?
Begira, etxeak eta apala naiz, oinak lurrean dauzkat eta badakit noraino hel naitekeen.

Kontaiguzu labur-labur zer egiten duzun egun normal batean.
Goizean zapatilak hartu, eta korrika egitera joaten naiz. Kilometroak eta kilometroak egiten ditut, bai goizean bai arratsaldean. Ondoren, masajistarengana joan, eta gero etxera. Eta, jakina, entrenamenduen artean arropa jantzi, kendu eta dutxara.

Zein kilometrotan nekatzen zara maratoian?
Lehenengo kilometroan batez ere. Kilometro horretan artega egoten da korrikalaria, helmugara iristeko irrikitan. Lau kilometro falta direnean, berriz, gehiago gozaten duzu.

Eta zein da bizitzaren kilometrorik gogorrena?
Bizitzan kilometro guztiak dira nekezak, ateratzen zarenetik helmugara ailegatu arte; izan ere, ez dago jakiterik helmuga non dagoen, eta beraz, inork ez daki nolako den bizitzako maratoia.

Ba al dute elkarren antzik bizitzak eta maratoiak?
Bai, jakina! Biak luzeak dira, nekezak, zailak, gogorrak; ematen du inoiz ez direla bukatzen, baina biek dute helmuga.

Zer dira zuretzat Joko Olinpikoak?
Dudarik gabe, Joko Olinpikoak edozein kirolariren ametsik ederrena da. Aurrekoan ere izan naiz olinpiadetan, baina, oraingoan, desberdina izango da. Orain irabazteko aukera daukat, eta hori ikaragarria da.

Nortaz gogoratuko zara Atlantian?
Lagun askotaz. Hala ere, lehenik eta behin neure buruaz eta nire familiaz gogoratuko naiz, honaino ailegatzea ez baita inondik ere debaldekoa izan.

Ba al dago mafiarik atletismoan?
Ezetzean nago ni. Orain profesionalizatzen hasi da, eta baliteke gerora esku beltzak azaltzea, baina gaur egun... ez.

Ikusten al duzu zeure burua Forrest Gump-en antzera, etengabe korrika?
Sari, Forrest-en antza daukadala esaten didate, eta gauza bat garbi dago: sasoi onean dabilenak ez du inoiz gelditu nahi.

Atlantarekin amets egiten duzunean zer datorkizu burura?
Amets horretan, abuztuaren 4an behar dudana aldea ateratzen diot bigarren maratoilariari, eta handik ikusten dut Zeledonek, gasteiztarrek eta gainontzekoek nola ospatzen duten nire garaipena.

Hori galdera, hori!

Lehengo batean, euskara hutsez gehien irakurtzen den egunkari batean argitaratutako artikulu bat irakurri nuen, kristautasunaren itzulerari buruzkoa, luma zorrotz batek idatzia, eta horrela bukatzen zen:

“Modernitate beranduko garai hauetan, eta erlijioaren itzulera- rako dauden arrazoiak eta moduak kontutan izanik, baluke kristautasunak bere tradizio berezitik, gurutziltzatuaren esperien- tziatik letorkeen esanahirik, sujetoaren autonomia eta hori ukatu gabe zentzuzko giroinguru batean lotzea une berean aitortzen duen irakaspenik? Galdera honen erantzunean dago kristautasun- aren etorkizunaren gakoa.”

Demonio! Ni betidanik oso kezkatu izan nau erlijio kontu honek. Galdera berriro irakurri eta erantzunaren aztarranik ez! Hura larritasuna. Eta hantxe bide zegoen Kristautasunaren etorkizunaren gakoa.

Lasaitu beharra neukan. Arnasa hartu, eta patxadaz eta arreta osoz berriro irakurtzeari ekin nion, ea oraingoan ondo ulertzen nuen eta erantzuteko kapaz nintzen. Alper-alperrik. Ezta hurrik eman ere!

Pasa zitzaidan burutik hermeneuta horietako bati deitzea ea argi piskat egiten zidan baina ez nuen eskura halako inoren telefonorik.

Kontsolatu nintzen pentsatuta Setien eta konpainia ere han ibiliko zirela galderari bueltaka eta asmatu ezinik. Kuittaduak! Halako batean konturatuko ziren haiek ere ez dagoela mundu honetan halako sintaxi kaskarra duen testua ulertuko duen kristaurik.

Zer gertatu zaigu? Nork esan digu zenbat eta ulertezinago idatzi hainbat eta idazkera jasoagoa dela? Zenbat eta korapilatsuago, orduan eta dotoreago eta maila handiagokoa dela?

Gasteizko Txantxikua

Aita Lertxundi marokoarra

Aurten 100 urte bete dira Aitzol eta Lizardi jaio zirela, Tolosan eta Zarautzen, hurrenez hurren. Bi olerkari hauek, bi idazle

handi hauek, jaio ziren urte berean, Euskal Herritik urrun, Marokoko lurretan, Tangerren, euskaldun bat hil egin zen, Aita Lertxundi frantziskotarra, 60 urte lehenago Orion jaiotako Jose Franzisko Lertxundi.

Elizak eta misio-etxeak eraiki; bigarren hezkuntza eta lanbide heziketako eskolak zabaldu; arabiera erakusteko eskola, inprenta bat eta Marokoko lehen medizina-eskola eta ospitalea sortu; behartsuentzako 35 etxe eta dohaineko jantoki bat egokitu; Tangerreko lehen musika-eskola, korua eta banda antolatu; Marokoko orduko sultanak (Hassan I) Espainiako erregearekin eta Leon XIII Aita Santuarekin izandako harremanetan bitartekari eta interpretari izan. Horiek denak egin omen zituen oriatarak Afrikako lurretan.

Bada gauza bat Lertxundik egindakoen artean gainontzekoak baino goraipagarriagoa iruditzen zaidana, batez ere aldizkari honetan argitaratzeko artikuluan izanda. Marokoko arabieraren gramatika bat idatzi zuen, bera hil eta urte askotara ere hara joandako atzerritarrek hizkuntza ikasteko erabiltzen segitu dutena. Zernolako adorea eta maitasuna ez ote zuen jarri ia 30 urte zituela joandako euskaldunak horren desberdina den hizkuntza (filologia eta kultura aldetik) ikasteko eta gramatika bat egiteko? Gogoan izan dezagun, Lertxundirena baloratzeko, nolako jarrera eta jokabidea izan duten Espainiako kolonizatzaileek historian zehar eta, gehienetan, haiekin eskuz-esku ibili den Elizak: gurutzarekin batera esportatu ohi duten lehenengo gauza hizkuntza izan baita, gaztelera.

Aita Lertxundik bertan bertako kultura eta hizkuntza landu behar direla adierazteko, bizitzeko egokitu zitzaion lurraldeko hizkuntza ikasten erakutsi zuen sentiberatasuna eta kemena, eta ez hitz hutsez, ekintzez baizik, eredugarri beharko genituzke gure zorioneko arduralaritza, administrazioa edo dena-delako honetan euskara egokitzen eta erabiltzen saiatzen ari garen guztiok. Lertxundiren jarrera ondo adierazten dute bere hitz hauek: “hizkuntza ikastearen helburu bakarra bertakoekin harreman estuan jartzea da”; eta zerabilen jokaeragatik Espainiako Gobernuak espainiaratzera behartu zuenean: “atzerrira naramate”.

Orioko beste bi Lertxundik, Benitok eta Anduk (Anjelek), aitzindari bikaina izan zuten bertan bertako hizkuntza maitatzea, lantzea, edertzea eta zabaltzeari dagokionean.

Iñaki Iturain
Orio

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA



Gutunak makinaz idatzi eta, gehienez ere, 15 lerro izango dituzte. Gutunarekin batera, nahitaez, igorlearen izen-abizenak eta NANA adierazi beharko dira. Jasotako gutunak ez dira itzuliko. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du gutunak laburtuta argitaratzeko. Halaber, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak bere erantzuna eman ahaliko du sail honetan bertan.

Linguapax nazioarteko mintegia

Martxoaren 11tik 14ra bitartean *Linguapax* nazioarteko mintegia egin zen Leioako Artaza jauregian, UNESCOk antolatuta. Maiz gertatzen den bezala, izenak berak ere badu garrantzia: hizkuntza eta bakea berba batean lotuta; garbi dago horrek duen esangura. Baina, mintegiaren filosofia eta ondorioak aztertzen hasi orduko, komenigarria litzateke ideia hau zergatik eta nondik datorren azaltzea.

Zer da *Linguapax*?

Linguapax programa 1986ko urtarrilean sortu zuen UNESCOk. Hasiera batean, bere helburu nagusia bi gauza elkarri lotzea izan zen: alde batetik, bigarren hizkuntzen irakaskuntza; eta, bestetik, herrien arteko elkartzasuna eta elkar ulertzea. Gaur egungo asmo nagusia, berriz, aniztasuna eta kulturen arteko komunikazioa indartzea da, hori urrats handia izango bailitzateke bakearen kultura eraikitzeko.


Horretaz gain, *Linguapax*ek baditu beste egiteko batzuk, hala nola, hizkuntz aniztasuna bermatzea, eta hizkuntza guztiak heziketa maila guztietan garatzea; hori guzti hori, tolerantzia eta giza eskubideetan oinarriturik, eta hizkuntza gutxituen eskubideak errespetatuz.

Ez da, bada, kasualitate hutsa Euskal Herrian egin izana hizkuntz politikari buruzko mintegi hau; izan ere, gure herrian arlo horretan burututako ekintzak ezagunak izateaz gain, erreferentzi garrantzitsu bihurtu dira azkenengo urte hauetan. Horiek horrela, ezin aipatu gabe utzi, Federico Mayor Zaragozak, UNESCOko zuzendari nagusiak, Euskadira egin duen lehen bisita ofiziala mintegiari hasiera emateko izan dela.

*Linguapax*en xedeak erdiesteko Mayor jaunak berak hiru proiektu berezi proposatu ditu:

- 1.- Munduko mapa sozio-linguistikoa prestatzea, mundu osoko hizkuntz komunitateen aberastasunak eta arazoak sakonago ezagutzeko.
- 2.- Pedagogi materiala sortzea eta irakasleei banatzea, lehen aipatutako helburuak lortzen laguntzeko.
- 3.- Hizkuntz eskubideak bermatzeko behar diren lege-bitartekoak garatzea.

Beste alde batetik, azpimarratzeko modukoa da Euskadiren eta UNESCOren arteko elkarlana bultzatzeari UNESCOko zuzendari nagusiak eman dion garrantzia. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzaren asmoa eta UNESCOren *Linguapax* nazioarteko mintegiaren bidez plangintza zehatz batean gauzatzen bada, hemendik aurrera bide berri bat irekiko da bi erakundeen lankidetzarako.



Linguapax mintegia Leioan

Jardunaldiak UNESCOren Lagunak-Euskal Herria elkarteak antolatu ditu, baina, azken finean, amets hau egi bihurtu da hainbat erakundek emandako laguntzari esker: Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Getxo, Bilbo eta Leioako udalak etab.

Lau egunetan, mundu guztiko adituak bildu dira mahainguru batean, hizkuntz politikaren inguruan dituzten iritziak eta ikerketak aztertzeko asmoz. Benetan interesgarria izan bada gure ereduetan sakontzea, ez da gutxiagorako izan, Frantzia, Kolonia, Alemania, Kanada, Kanputxea, Bolivia, Belgika, Katalunia eta hainbat tokitako esperientziak ezagutzeko.

Mintegian aztertu diren gaiak honako hauek izan dira: hizkuntz aniztasuna, eta hizkuntza horiek bakearen kulturari egiten dioten ekarpena; hizkuntz plangintzak, heziketa, komunikabideak, teknologia berriak, eta administrazioa. Horiek guztiak, tokian tokiko esperientziak ikertuz.

Mintegiaren ondorio nagusienak lerro hauetan labur daitezke: hizkuntz politikak hizkuntz komunitate bakoitzaren beharrez, egoerari, ezaugarriei eta baldintzei egokitu behar zaizkie; eta, gainera, zaindu eta sustatu behar dute gutxiengo mintzaireren eta ama hizkuntzen erabilera.

Horretarako bide bat, zalantzarik gabe, hezkuntza da. Hezkuntza formalak balio behar du hizkuntz eta kultur aniztasunari, eta talde nagusien eta txikiagoen arteko tolerantziari erreparatzen laguntzeko. Nolanahi ere, hezkuntza horrek gutxiengo hizkuntzetan emaitza onak ekar ditzan, hizkuntz politikak beste arlo batzuk ere jorratu behar ditu, batez ere, komunikabideak, administrazio publikoa, ekonomia eta merkataritza.

Oinarriak, beraz, finkatuta daude; orain lanari ekin behar.

Aintzane Leniz
Heziketa saila
UNESCOren Lagunak-Euskal Herria

Txostena

Nondik-norakoak

Idazki luze samarra da txostena. Normalean erakunde baten barruan beste norbaiten eskariz egiten da, eta zerbaiti edo norbaiti buruzko argibideak eta datuak (egitasmo baten egokitasuna, zerbitzu baten barne-egituraren aldaketa...) biltzen ditu.

Gure asmoa zein, halakoa izan behar du gure txostenak. Txosten batzuek egoeraren berri ematen dute eta besterik ez. Beste batzuek, ordea, egoera horien arrazoiak aztertzen dituzte. Erabilienez gain, azkenik, egoera eta arrazoiak jakinarazteaz gain, ondorioak atera eta gomendioak ematen dituzte.

Idazteko irizpideak

Edozein testu idazten hasi aurretik, garrantzi handikoa da mezua irakurlearen ezaugarrietara egokitzea, eta, horretarako, geure buruari galdera hauek egitea: zer daki irakurleak gai horretaz? Ba al du aurriritzirik? Ba ote du denborarik txosten osoa irakurtzeko?

Txostenak luzeak izaten direla kontuan hartzen badugu, are premiazkoagoa da egokitze-lan hori. Esanak esan, honelakoa izan behar du idazkiak:

- Argia. Ulertzeko moduko hitz eta esamoldeak aukeratu ditugu.
- Laburra. Luzezia izanez gero, jende gutxik irakurriko du.
- Egituratu. Idaztea bezain garrantzitsua da mezua egoki antolatzea.
- Erakargarria. Txostenaren diseinua zaindu egin behar da (izenburuak erabili, testua lerroaldeka banatu, tipografiaz baliatu).

Osagaiak

Hiru dira, oro har, txosten «klasikoaren» osagaiak: hasierako materiala, gorputza eta material osagarria.

Hasierako materiala

Honen bidez, zenbait argibide orokor ematen zaio irakurleari txostenaren gorputza errazago uler dezan. Material honen barruan, besteak beste, ondorengook aurki ditzakegu:

- Azala. Paper sendoagokoa izaten da. Bertan honako hauek jasotzen dira: erakundearen izena, txostena egin duen zerbitzu edo sailarena eta txostenaren izena (ahalik eta laburrena).
- Lehenengo orria. Orri honetan, azaleko datuez gain, txostena nork edo nortzuk egin duten eta zein egunetan adierazten da.

- Hitzaurrea. Atal hau egileak berak edo beste norbaitek bete dezake. Sarreran bi galderoi erantzuten zaie: zeri buruzkoa da txostena? Zergatik idatzi da?

- Esker onak. Txostena aurrera ateratzen lagundu duten guztiei eskerrak eman ahal zaizkie. Txostena oso luzea ez bada, atal hau hitzaurrearen amaieran sar daiteke.

- Aurkibidea. Idazkiaren atalak laburbiltzen dira, orrialdeka.

- Laburpena. Txostenaren zatirik garrantzitsuenetarikoa da; izan ere, horixe da irakurtzen den lehen gauza, eta, askotan, gauza bakarra. Atal honek bide eman behar du txostenaren edukiak, ondorioak eta irtenbideak lerro gutxitan jaso ahal izateko.

Gorputza

Txostenaren muina da eta hiru zati nagusi ditu:

- Lehen zatian argibide batzuk ematen dira: txostenaren helburuak, aurrekariak, oinarri teorikoa, erabilitako metodologia etab. Adierazitako argibideok lagungarri izango dira ondorengo azalpenei begira.

- Bigarren zatian egileak txostena jorrotzeari ekiten dio: ekintzak, datuak, frogak, iritziak, helburuak, baliabideak, kostuak, epeak, bestelako aukerak, abantailak, esperientziak etab. Txostenaren zatirik luzeena da; hori dela eta, era guztietako baliabideak erabili behar ditugu testua arindu eta adieraz egiteko: adibideak, laburpenak, grafikoak...

- Hirugarrenean txostenaren ondorioak, emaitzak (onak zein txarrak) eta gomendioak (eskatzen badira) jasoko ditugu. Gogoan izan, hemengo zenbait datu aurrikusirik daudela hasierako laburpenean.

Material osagarria

Irakurle guztientzat behar-beharrezkoak ez diren datuak eraskinetan ematea komeni da. Eraskinez gain, badira zenbait material osagarri, txosten-motaren arabera erabili daitezkeenak. Horra horietako batzuk: txosteneko sinboloen, laburpenen eta siglen azalpena; glosarioak edo hitz teknikoaren hiztegia; bibliografia; gai-zerrenda abezekiro emana eta abar.

Proposamen berria txostena egiteko

Txostenak irakurri behar dituztenek denbora gutxi izaten dutenez, gero eta gehiago erabiltzen da ondorengo eredu berria; alegia, lehen orrian izenburua, egilea, laburpena, ondorioak eta irtenbideak ematen dira; eta gainontzeko informazioa eraskinetan jasotzen ditugu. Badirudi, beraz, txosten «klasikoa» baztertu gabe, eredu berri honi berea ematen hasi beharko genukeela.

Joseba Lozano

HAEEko administrazioko hizkeraren arduraduna

Auzolana eta ingurua

Leitzako garai bateko herritarrek «inguruzaia» deitzen zioten Udalaren agindupean oihanak, bideak eta larreak zaintzeko zegoen gizakiari. «Inguruzaia» batez ere begiratu, noizean behin isunen bat edo beste ipini eta auzolana noiz egin beharra zegoen adierazi egin behar zuen. Ingurua zaintzea omen zuen bere zeregina. Ingurua.

Bideren bateko bazterretan uholde batek kalte egin baldin bazuen, zubi batek konpontzeko premia baldin bazeukan, larrea garbitu behar baldin bazen, aldabio bat egin behar baldin bazen edo mendiko zati bat itxi behar baldin bazen, beti inguruzaia zen auzokoekin mintzatu ondoren Udalarari auzolanaren premia adierazten ziona. Eta ondoren auzolana egiteko deia barreiatzen zuena. Ingurua herritar guztien ondare osoa zen: basoak, bideak, kaleak, iturriak, ubideak...

Auzolana ingurua zaintzeko auzokide bakoitzak egin behar zuen emaitza zen; zerga bat bezala, baina zerga bat baino askoz ere gehiago. Izan ere, auzolanak herritar bakoitzari ingurua zer den, nolakoa den eta batez ere guztiena dela erakusten baitio.

Eta ondorioz maitatzen eta aintzat hartzen ere bai. Horregatik, garai bateko herritarrek herriko komunalak ziren guztiak ongi baino hobeki ezagutzen zituzten, bidea, bidezidorrak, larreak, ubideak edo basoak bezalaxe.

Auzolana eta inguruaren ezaguketa elkar hartzen duten bizi-moduaren alde bi baizik ez da.

Auzolana bizi-bizirik Nafarroan

Baina, Nafarroan oraindik herri asko eta askotan bizirik dirau auzolanaren ohiturak. Egia da ordea, inguruaren garrantzia gero eta tikiagoa dela gizarteari dagokionez. Orain ingurua ertza besterik ez dela iruditzen zaigu eta herriko mendiak «komunalak» deitzen ditugu; «kontzentrazioek» bide-zidor guztiak desegin dituzte; iturriak eta ibaiak askotan hartuak eta ezkutatuak daude eta batez ere, eraikuntza eta obra gehienak kontratista profesionalen bitartez egiten dira. Auzolanak dirauen tokietan ere, garrantzi gutxi samarreko eraikuntzarako dirau.

Auzolana gutxitzearen ondorioz nabarmenena zera da herritarrek ez dituztela xehetasunez ezagutzen beren herrietako inguruak: bideak, basoak, mugak, iturriak eta abar. Eta are gehiago; ezagutzen ez dituzten neurrian, ez dituztela aintzat hartzen edo ez dituztela maitatzen.

Gainera, beste zehaztasun bat ere aipatu nahi nuke, zera alegia, Nafarroako Ertaldeko edo Erriberako herri askotan euskara galdu eta askoz ondorengoan ere, auzolana egitera dei-

tzen dute, bandoa joaz. Gares, Bargota, Uxua edo Gallipienzo eta beste hainbestetan. Izenak eta ohiturak iraun egin du, toponimiako hitzekin gertatu ohi den bezala, hizkuntza bera ahaztu eta gero.

Hirietan berpiztea ametsa ote?

Horregatik guztiarengatik auzolanak merezi luke gure artean berriro ere aintzat hartua izatea. Gaurko bizimodu urbanora egokitu litekeelakoan nago. Horretarako auzolanaren bitartez egiten den emaitzari onarpen fiskala ezagutu beharko litzaioke eta gure hirien ingurutako ibai-ertzak edo lorategiak edo hesi eta bide-zidorrak zergatik ez lituzkete zaindu beharko langabezia denbora luzea daramatenek? Zeren truke? Esate baterako beren zerga ordainketaren truke.


Auzolana hirietan eta gaurko bizimoduaren berpiztea ez da erraza. Baina helburu zoragarria da, zeren eta auzolana egiten duenak bakarrik ezagutzen eta maitatzen baitu ingurua. Lurra lantzen duenak bestek maitatzen ez duen bezala.

Auzolana egiten duenak bakarrik ezagutzen eta maitatzen du ingurua

Joan den hemeretzigarren mendera arte ingurua edo komunalak jendearen bizimodurako izugarriko babesa ziren: egurra, zura, aziendentzako larrea, espartoa, igeltsua, buztina, burdina... dena

ingurutik zetorren bizimodu autarkiko hartan. Eta horregatik komunalaren defentsako borroka hain garrantzia eta ankerra gertatu zen sozialki karlistadatan eta baita 36ko gerratean. Komunala edo ingurua eta auzolana txanpon berberan bi aldeak baizik ez ziren.

Patxi Zabaleta
Idazlea



Euskal Herriaren berri emango duen aldizkaria katalanez

Hasierako proiektua Bartzelonako Euskal Etxearen inguruan sortu zen. Gero ideia garatu, eta *De bat a bat, per coneixer el Pais Basc* izeneko aldizkaria kaleratu dute. Aldizkaria katalanez idatzita dago, eta Euskal Herriari buruzko gaiak jorratzen ditu. Lehen alea apirilean kaleratu zen –Sant Jordi egunean, hain zuzen ere–, eta hemendik aurrera bi hilabeterik behin izango da salgai.

Planeta argitaletxeak gazteentzako entziklopedia bat argitaratu du euskaraz

Planeta Entziklopedia Jakintza Arloka plazaratu berri du Planeta argitaletxeak. Entziklopedia hau euskaraz dago, eta hamabost liburukik osatzen dute, horietako azkena Euskal Herriari buruzkoa eta hemengo jendeak egina. Entziklopedia hau hamabi eta hemezortzi urte bitarteko ikasleen beharrak asetzeari begira prestatu da, eta oraingoz, lehen bi liburukiak besterik ez duzue izango eskuragai.

Nafarrak euskararen alde

Nafarroako Gobernuak ezagutzera eman duen *Euskara Nafarroan zertan den* soziologia ikerketaren arabera, nafar gehienak euskara bultzatzearen aldeko dira. Azterlan hori Carlos Vilches eta Jone Cosin soziologoez egin dute 1992, 1993 eta 1994an Nafarroak legez dituen hiru hizkuntz eremuetan. Ikerketak ez du inolako ondorioz eskaintzen, hala nahi izan



Mundua on line

Generalitat de Catalunya
<http://www.gencat.es>

Oraingoa ere kataluniarrek aurrea hartu digute, eta Internet sarean sartu dute Katalunia eta Generalitateari buruzko argibide-zerrenda luzea. Besteak beste, Kataluniako historia, sinboloak, hizkuntza, autonomi estatutua, lurralde-antolaketa, e.a. daude ikusgai Generalitateak mundu osora zabalduzako informazioan. Gainera, Legebiltzarrari, Gobernuari, Kataluniako Aldizkari Ofizialari, Generalitateko presidenteari eta departamentu guztiei buruzko informazioa ere eskura dezakegu gure konputagailuen bidez. Kataluniako ikuspegi zabalagoa izateko, zerbitzu honek Kataluniako unibertsitate guztiekin konektatzeko aukera ematen du, eta baita bertako komunikabide publikoekin ere. Informazio osoa katalanera dago eta maiz eguneratzen dute.

dutelako egileek; baina datuak hortxe daude, eta zalantzarik gabe, garrantzitsuak izango dira, etorkizunean Nafarroako hizkuntz politika diseinatzeke.

Iruñeko udalak baiezkota eman dio euskara hutsezko propagandari

Iruñeko Udalak 1991n erabakitakoaren arabera, debekatuta zegoen udal horrek babestutako ekitaldi kulturalen propaganda euskara hutsean egitea. Erabaki hori zela eta, Ortzadar dantza taldeak errekurtsioa jarri zuen; udalak onartu ez, eta auzia epaitegietara eraman zuten. Hala ere, epaia zein den jakin aurretik, udalak iritzia aldatu, eta onartu egin du aurten egin beharreko hitzarmenatarako propaganda euskara hutsean egin ahal izatea.

Euskara EEBBetan ikertzeko egitasmo berria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikerketa bat ordainduko du, Maryland-go Unibertsitatean (EEBB) euskararen egitura sakon aztertzeko. Lehen urrats hori bete ondoren, euskara ikasteko sistema informatiko bat garatzeko asmoa dago; horretaz gain, euskaratik gaztelerara eta gazteleratik euskarara itzulpenak egiteko tresna aurrera ateratzea da ikertzaileen helburuetariko bat. Informatikan eta hizkuntzalaritzan adituak diren Euskal Herriko hogeita bat ikertzailek izango dute proiektu horretan amerikarekin batera parte hartzeko aukera.

Euskal kulturako espezializazio diploma

Deustuko Unibertsitateak eta Euskal Ikaskuntzen Institutuak antolatutako ikastaro hau lizentziatuari, diplomatuari eta unibertsitateko 2. zikloko ikasleei zuzenduta dago. Edukien artean, besteak beste, honako hauek azpimarra ditzakegu: soziologia, geografia, Euskal Herriko historia, literatura, linguistika, marko juridikoa, kultur baliabideen kudeaketa eta ekonomia. Ikastaroa urrian hasi eta datorren urteko ekainean amaituko da. Argibide gehiagorako deitu 445 31 00 (2425 luz.) telefonora.

Euskararen Aholku Batzorde berria

Eusko Jaurlaritzak, ekainaren 18an egindako bileran, Euskararen Aholku Batzordea eraberritzeko dekretua onartu zuen. Batzorde horretan Euskal Herri osoko kideak izango dira, eta horien artean, lehendakaria eta Kultura sailburuaz gain, honako hauek aipa daitezke: Hizkuntza Politikarako sailburordea; HABEko eta EITBko zuzendariak; Ogasun eta Herri Administrazio, eta Hezkuntza sailburuen ordezkariak; EAEko diputazioetako ordezkari bana; EUDEL, UEMA eta Euskaltzaindiko ordezkari bana; eta Kultura sailburuak hautatutako adituak (gehienez ere 20). Batzordearen lehen zereginetako bat Hizkuntz Politikarako Sailordetzak 1998an aurkeztutako duen Euskararen Erabilera Bultzatzeko Plana aztertzea izango da.

Margaritaren irribarrea

Kostata, baina azkenik lortu zuen Margaritak euskaraz maila dezentean hitz egitea. Atzean geratu ziren HABEko ikastaro trinko-brinkolariak; atzean, barnetegiak, barretegiak. Denak ezagutzen zituen. Hori uste zuen behintzat. Atzean, egonaldi ugari Goierriko baserri batean. Eta zertarako, konturatzeko behi euskaldunek marruma bai, baina hitz gutxi egiten zutela Aitorren (nor zen Aitor?) hizkuntzan. Lortua zuen azkenik titulua. Ikasia, azkenik, zein bide latza eta malkarra dagoen amesgaizotik ametsera bitartean. Ametsa! Bere herrian bere hizkuntzaz mintzatzea.

Lehendik zuen lanpostura itzultzeko eguna iritsi zitzaion, bulego autonomiko bateko leihatilara. Cobros-Ordainketak. Goiz hartan hortzak garbitu zituen, mihia zorroztu, pentsatuz azken urteko neke eta sofrikarioak izango zuela fruitu ederrik. Izango zuela bere herriari zerbitzatzeko aukera. Aitorren hizkuntza! (Baina nor demontre zen Aitor?) Dena eman behar baitzaio herriari.

Sartu zen leihatila kristalezkoaren atzera: hesi bat, bera eta mundua biak elkarrengandik bereiz egoteko. Nola gerlariak bata bestearen aurrean jartzen diren, etsaia zelatatu eta hobeto ezagutzeko, halaxe zegoen gure emakumea, bere tokian, atezuan, bulegora sartuko zen lehen euskaldunaren zain. Txartela jarri zuen, denok ikusteko moduan: «Badakigu euskaraz». Eta irribarre bat erakutsi zuen, handia, zabala, zelaia, ordeka, lautada... Hainbeste ikasi ondoren, ahaztua zitzaion hirian ez dagoela zelairik, ez ordekarik, ez lautadarik. Hiria hiria zen, besteko ezaugarri handirik gabe. Hura ez zen ariketa bat, sinonimoak lantzeko iharduna. Burua ez zuen erabat garbi, xahaturik. Utikan sinonimoak!

Bederatziak puntu-puntu. Leihatila ireki zuen. Begiak zorroztu zituen, lantza tantaiaik bailiren. Bere bizitzako egunik erabakigarriena zen.

Hala uste zuen behintzat, bederen, gutxienez, sikiera.

Gizon bat agertu zen bederatzi t'erdietan. Itxuraz euskalduna: sudur luzea, kopeta zabala... Begiak zuritu zitzaizkion Margaritari. Erreparasatzen hasi zen: «Egunon, jauna! Zer nahi duzu?». Gizona hurbildu zitzaion.

– Egunon, jauna! Zer... –hasi zen Margarita esaten!

Ez zuen bukatzerik izan. Gizonak pistola bat zuen eskuan, metal beltzekoa, distiratsua. Begiak ere beltzak zituela otu zitzaion Margaritari: dar-dar egiten zuten bulegoko argi artifizialaren pean.

– Hau atrakue da! –esan zuen gizonak.

– Atrakue? –erantzun zion Margaritak, haserre doinuaz. Zer da atrakue?

– Lapurretie, neska! Ez al dakin euskaraz ala? –esan zion gizonak, pistola ezker-eskubi dantzatzuz, urduri samar.

Lapurreta, pentsatu zuen Margaritak. Epaskoa, ohorgoa. Aurpegia alaitu zitzaion. Hitz egiteko gogo piztu.

– Zu, orduan, ohoina zara? –galdetu zion Margaritak, liluratutik.

– Zer oina eta zer oinordeko! Ez al dun ikusten lapurre naizela ni? –erantzun zion gizonak gero eta harrituago.

– Horixe esan dizut! Zu ohoina zara. Ebaslea, xiskalaria –esan zuen Margaritak doinu irmoz.

– Xiska... zer? –galdetu zion gizonak, ezjakin aurpegia jarriz. Ez zuen ulertzen.

– Xiskalaria! Ebaslea! Lapurra! Eta zu euskalduna zara? –galdetu zion Margaritak, euskara-irakasleen doinu agintaria imitatuz.

Gizonak pistola beheratu zuen; begiak ere lurrera jaitsi zitzaizkion.

– Ez naun oraindik alfabetizatu! –jaulgi zitzaion etsi beltzez gizonari.

Gero, gizonak pistola gorde eta aldegin zuen, etorri zen bide-tik. Margaritaren begiak dantzari zebiltzan pozaren pozez. Aitorren hizkuntza (baina nor demontre zen Aitor?) erabat mendean zuen. Erreparasatzen hasi zen: menperatua, eskuan... Eta irribarrea gero eta estuago, meharrago: ataka gaitza ezpainen lauan.

Felipe Juaristi
Idazlea



**Atzean geratu ziren
HABEko ikastaro
trinko-brinkolariak;
atzean, barnetegiak,
barretegiak**

Anjel Lertxundi:

«Tradiziorik gabe ez dago modernitasunik»



Zarautzen Anjel Lertxundi dugu zain. Aitzakia, elkarrizketa bat. Bazkalondoko euri-zaparradak elkarrizketa bertan behera uztera gonbidatu gaitu. Anjel Lertxundik hitz-aspertu bat egin nahiago du.

Kapitain Frakasa eta Otto Pette liburuak aldaketarik ekarri al diote zure lanari?

Ordura arte egiten ari nintzen literatura, nolabait, ni neu betetzen ez ninduen literatura zen. Paisaia eta pertsonaia haiek ezagutzen nituen, jakina, baina, egia esan, ni ez nintzen oso eroso sentitzen. Une batean ohartu nintzen literatura zuk ezagutzen ez duzun mundu batean sartzeko ere badela, edo zure barnean dauden alderdi ilunago batzuetan arakatzeko. Hor, beraz, krisi bat dago, eta krisi hori, nik uste, *Karla* eleberrian jasota dago. Gero *Otto Pette* eta *Kapitain Frakasa* sortu ziren. Esan genezake biak txanpon beraren bi alde direla, une beretsuan sortuta baitaude. Arrazoi asko direla-eta, *Kapitain Frakasa* askoz lehenago atera zen. Ondoren atera izan balitz, hobeto ulertuko zen segurasko.

Otto Pette testuinguru berezi batean kokatzen duzu, erdi aroan hain zuzen ere. Zer dela-eta aukera hori?

Erdi aroan niri asko interesatzen zaizkidan fenomeno batzuk gertatzen dira. Jaungoikoarenganako lotura izugarriaren ondoren, gizakiarenganako konfiantza askoz handiagoa sortzen da. Garai hartan aldaketa itzelak daude, eta sekulako izuak sortzen dira. Nik halako zerbait ikusten dut gaur ere; nolabait esateko, gaur post-erdi aro batean bizi gara. Orain dela hogeitau urte gure gizartean izan den sekularizazio prozesua, hau da, euskarri ideologikorik gabe gelditzea eta erdi aroko egoera oso antzekoak dira; badira, beraz, elementu konfluyente batzuk, eta nik jaso egiten ditut *Otto Pette*ren.

Otto Petteren izugarri zaintzen duzu idazkera.

Alderdi asko daude horretan. Batetik, soziolo-

gikoa: euskarak etorkizuna izango du kantitatea baino gehiago kalitatea zaintzen dugun neurrian. Zenbat eta euskara arruntago egin, orduan eta laburragoa izango da euskaldunon lotura hizkuntzarekiko. Zaintzeak, hala ere, ez du zailteza esan nahi, baikik eta ahalik eta etekin gehien atera hizkuntzari. Beste batetik, nire ustez, gizakiok bezalaxe, hitzek ere dute nortasuna: hori deskubritzea da idazlearen lana. Askotan testuek ez didate ezertxo ere esaten, baina bai, ordea, testu horietako hitzek duten kontestualizazioak. Hau da, hitzek eta hizkuntzek kontestuan bakarrik balio dute. Orduan, idazle baten lana da kontestu hori zaintzea. Narrazioak asmatzea ez da soilik istorioak asmatzea, baizik eta kontestu horiek sortzen laguntzea.

Datozen urteetarako proiektuak

Alberdaniako Ifrentzuak sailak eta, hain zuzen ere, bere lehen liburuak, *Piztiaren izenak*, bide berri bat urratu dute. Bertan gure ahozko tradizioa eta Europako tradizio idatzia aztertzen dituzu.

Tradizio hitzak zahar kontuaren oihartzuna sortzen du. Niretzat, ordea, tradizioa zerbait baldin bada, guztiz modernoa da. Ez dago modernitasunik tradiziorik gabe. Eta tradizioa dinamika eta berrikuntza da. Ez dago inolako hausturarik planteatzerik tradiziorik gabe. Tradizioa oinarria da, eta oinarri hori aldatu nahi duzun neurrian, harekin jokatu beharko duzu. Tradiziotik kanpo ibiltzea norabiderik gabe ibiltzea da.

Euskarak etorkizuna izango du kantitatea baino gehiago kalitatea zaintzen dugun neurrian

Fausto edo Judu Erratuaren mitoak, esaterako, gure barnean daude. Tradizioak jorratu dituen mito horiek gure baitan daude, ez dira gure barne egoeren eta gure kezken adierazpide bat besterik. Alde horretatik tradizioa ezin liteke izan zerbait modernoa baino. Mito horiek gaur egun ere balio dutela ikusten dugun neurrian, gure giza izaeraren egoerarik sakonenak lantzen dituztela ikusten dugu. Eta hori ere badago Ifrentzuak saileko gorabehera horretan: tradizioa modu moderno batean. Sail honetan unibertso bat eman nahi nuen, bai gaiena bai estilo eta tonuena. *Piztiaren izena* liburuan ipuinak eta glosa literarioak sartzen ditut; bigarren liburua nobela bat da; hirugarrena, seguruasko, lau narrazio; eta azkena entsaiu edo saiakera bat. Bestalde, bada beste elementu bat, niretzat oso garrantzitsua: gure mitoak, gure ahozko tradizioaren pertsonaiak, Europako mito guzti horiekin harremanetan jartzea; buruz buru jartzea. Esaterako, Axular, bere itzala galtzen duen apaiz hori, Faustoren alboan jartzea.

Zer agertzen duzu Ifrentzuak saileko Azkenaz beste liburuan?

Judu Erratuaren mitoa jasotzen dut. Hor halako mistura bat egiten dut istorio desberdinen artean. Oso nobela bitxia da: elementu mitikoak planteatzen ditut; elementu historikoak; lurralde desberdinak (Amerika, Europa eta Euskal Herria); eta mende desberdinak ere bai. Bidaia bat da, bai denboran, bai toki desberdinetan. Errealitate eta fikzioaren arteko bidaia da.

Argitaletxe batekin lau liburu idazteko konpromezua hartzea ez da ohikoa Euskal Herrian.

Proiektu hau izan da Alberdania eta bion arteko elkarriketa luze baten ondorioa. Literarioki sintonia handia dugu elkarrekin, eta proiektu hau, neurri handi batean, luze hitz egin dugulako borobildu da. Nik hasieran beste planteamendu bat nuen, xumeagoa, adierazten nekiena; eta planteamendu berriak, ordea, arrisku handiagoa eskatzen dit. Esate baterako, bigarren liburuan ipuin eta glosak idatzi beharrean, nobela bat idatziko nuela erabaki zen bilera horietan.

Ez al zaitu tentatzen poesiak?

Letren errepublikan zerbait miresten baldin badut, poeta on bat da. Poesia tenplua da eta narratiba, berriz, plaza. Nik sekulako errespetua diot poesiari. Lehen aipatu dudan hitzen nortasuna azken muturreraino eramaten du poesiak. Narratibak ez dituen mekanismo batzuk ditu hark. Ni poesia irakurlea naiz, baina ez ditut mekanismo horiek ezagutzen narratibarenak ezagutzen ditudan bezala.

Aurten hamaika omenaldi egin dizkiete Aitzoli eta Lizardiri.

Lizardik eta Aitzolek proposamen kultural bat egin zuten herri honentzat eta euskararentzat. Nik, Lizardirena eta Aitzolena aitzakia harturik, hari buruzko gogoeta egitea proposatu nuen. Hau da, proposamen hura gaurkotzea, eta planteamendu haiek gaur posibleak diren ala ez ikustea. Hortik ondorio asko atera litezke. Lizardi eta Aitzolen omenaldiek aukera paregabea eskaintzen dute atzera ez baizik eta aurrera begiratzeko.

Bihar-etziko euskal literatura

Galdera oso orokorra bada ere, zein dira gaur egun literaturgintzan egin beharreko gogoetak?

Gure literaturaren mundua oso txikia eta mugatua da. Bere dimentsioa ez da komunikabideek eta irakaskuntzak ematen dutena. Bestalde, azken hogeitun urteotan idazle andana bat sortu da, batzuk oso onak, eta isiltasunean dauzkagu erabat. Badago halako ezjakintasun handi bat horien inguruan. Hori, beste alde batetik, ez da txarra. Gazteek sufritu egin behar dute piska bat. Hala eta guztiz ere, uste dut bidegabekeria dexente egiten ari garela.

Ni gazteengandik nire belaunaldiko jendearengandik adina ari naiz ikasten. Gazteak lilura gehiagoz irakurtzen ditut, neurri handi batean, atezuan egoten behartzen nautelako; ezin naizelako lasai gelditu. Oso dinamikoa da idazle baten bizitza, eta, orduan, apaltasun osoz gazteak atzetik bultzaka datozela ikusteak atezuan egotera behartzen nau. Alde horretatik, beraz, orain urte batzuk ezkorragoa nintzen honetaz, etsiengo nengoen, baina nik uste dut gaur jende gazte on asko datorrela.

Gazteleeraz eta frantzieraz idatzitako literaturak inguraturik bizi gara.

Gu egoera jakin batean bizi gara, hau da, hizkuntza txiki baten egoeran. Orduan, egunero erdaraz irakurtzera behartuta nago. Nire jakin-nahi literarioa asetu nahi badut, ez dut aski euskararekin. Egoera hori modu ezkorrean har liteke edo modu positiboan; hau da, pentsatu dezaket inguruko tradizio literarioan parte hartzen dudala, eta askoz errazago neureganatzen dudala tradizio hori, bere tradizio soilarekin dabilen idazle espainol batek baino.

Dena den, Espainiako eta Frantziako literaturari begira, euskal idazleak morrontzan bizitzeko arriskuan daude. Orain nik, euskal idazleen alde horretatik, zera planteatuko nuke: hori gainditu eta Euskaditik unibertsaltasunera, ahal den ikuspegi zabalerara, bidaia egitea. Eta ez espaineratik euskarara edo euskaratik espainerara, baizik eta maila hori gainditu eta beste batera abiatu. Nire ustez, ikuspegi hori izatea inportantea da. Formazioz, bai komunikabideen eraginez, bai historiaren beraren eraginez eta bai gure gizartearen eraginez, harremana espainera-euskara edo frantziara-euskara da. Idazleak oso kontuan hartu behar du hori, eta ez du bere burua espaineraren edo frantziaren erreferentzia bakarrera mugatu behar.

Sarrionaindiak honako hau dio: «zalantza haziak ereiten ditugu zalantzondoak biltzeko».

Zalantza giza baldintza da, eta giza baldintzak ez dauka segurtasunik. Giza baldintza zalantzak argitu nahi izateari lotuta dago; bestela, gure izaera erabat funtsik gabe planteatzen dugu, harri bat edo landare bat balitz bezala. Landare batek ez dio bere buruari galdetzen ez zertarako dagoen ezta nora doan ere; eta guk, berriz, zalantza dugu oinarri hori planteatzen dugulako. Eta, planteatu, gure zorionerako eta gure zoritxarrerako planteatzen dugu.

Lutxo Egia
Kazetaria

**Letren errepublikan
zerbait miresten
badut,
poeta on bat da**

Bilboko kafe antzokia

Bilboko euskal komunitatea konpaktatu beharraz hitz egiterakoan, euskaldungoa, etsipen eta ezkortasun geldikorretik baikortasun itsu eta hutsaletik bezain urrun, baikortasun kritikora erakartzearen premia azpimarratu beharra dago.

Bilbon, 37.000 euskaldunok sekulako zailtasunak ditugu euskaraz bizi ahal izateko, eta gainera 80.000 «ia euskaldunek» (hauen artean orain ikasten ari direnak) ikasitakoa praktikan erabiltzeko eta hobetzeko aukera gutxi dute. Bilbon, Euskal Herri osoan antzera, edo nabarmenago, hizkuntz komunitatea desegituratu eta desitxuraturik dago.

Hizkuntz komunitatea, beraz, trinkotzen eta egituratzen hasi beharra dago. Gu behintzat, horrek eskatzen duen jauzi kualitatibo integratzailea emateko deliberaturik gaude. Horretarako, abiapuntutzat elkarren osagarri diren bi zutabetan oinarritzen gara: batetik, orain arteko euskaraz bizitzeko urratu dugun bidea, metatu dugun esperientzia; bestetik, euskararen historia eta biziraupenaren karira hemen sortu den Txepetxen mintzo berria.

Orain ZENBAT GARA euskaraz bizitzeko elkartearen proiektua (eguneroko praktikan euskaltegiko ikasleei eman dizkiegun zerbitzu berezien bilakaera naturala) sendo eraikitzeko eta garatzen joateko praxia eta teoria uztartzen ahalegindu behar dugu.

Barrura begira edo autoeraketa kontuan hartuz: esperientziari esker maila horretara iritsi direnak trinkotzen joan, geurean ere hizkuntz komunitatea nuklearizatzen joan dadin. Geure burua formatu eta geure arteko harremanak, ekimenak, eta abar egokitzen eta garatzen joan; beti ere, sormena, ezagutza eta erabilpena (bestela esanik: ideiak, pertsonak eta errekurtoak) etengabe elkarren artean elikatuz eta berdintasunaren mintzoaren arabera antolatuz.

Bilboko errealitatean eraginez euskaldungoaren integratze, egituratze eta trinkotze prozesuan osagarri diren ekimenak gauzatuz joan.

Hortik euskaldunen topagune izateko (eta erdaldunek ere euskararen jaiean bizitzeko aproposa) nahiarekin sortu den Bilboko KAFE ANTZOKIA. Joan den abenduaren 15ean zabaldu zen eta geroztik, kafe eta jatetxe zerbitzuez gain, hainbat kultur ekitaldi antolatu dira. Jendea bidea ikasten ari da eta kultur biltoki berezia bilaka dadin, ekitaldi gero eta anitzagoak, sormenezko bideetan barna, antolatu nahi dira. Euskararen bizitzatik biziaren hizkuntza barna, errotuak eta zabalduak, euskaraz gero eta aberats eta osoago bizi ahal izateko.

Erronka, azken batean, biziarena berarena da.

ZENBAT GARA
kultur elkartea

Mintzalaguna

Duela laupabost urte Donostiako «Bagera» euskal elkarteak honako hau ikusi zuen: gaur egun euskaltegietan ikasle asko egon arren, ikasle horiek kalera irten eta ez dute aukerarik izaten euskaraz egiteko eta, horren ondorioz, ikasitakoa ezin erabilirik ibiltzen dira.

Horren aurrean, «Mintzalaguna» sortu zuten «tandem» izeneko metodologia oinarritzat hartuta, hau da, hainbat hizkuntza dakizkiten bi edo hiru lagun arteko hizkuntz elkartrukea. Halere, mintzalaguna ez da erabateko tandem. Izan ere, euskara-ikasleak euskara jasotzen du, baina euskaldunak, hizkuntzaren aldetik behintzat, ez du ezer jasotzen ordainetan. Beraz, ez dago hizkuntz elkartrukea.

Euskarari dagokiolarik, Donostian beharra dena Gasteizen premia bihurtzen da, eta GEU Elkarteak Gasteizen egokitu eta zabaldu du egitasmo bera. Horretarako, Gaztediaren Foru Erakundearen dirulaguntza jaso du.

«Mintzalaguna» izeneko proiektuaren ardatzik behinenak hauexek dira:

- Euskara-ikasleak eta euskaldunak beren ahalmen, adin eta zaletasunen arabera harremanetan jartzea.
- Euskaldunak euskara-ikasleari mintzatzen lagunduko dio, euskalduntzen ari denak hitz egiteko erraztasuna lor dezan.

«Mintzalaguna» hamasei urtetik gorako euskaldun eta euskara-ikasleei zuzenduta dago eta azken horiek euskaraz mintzatzeko gutxieneko gaitasuna izan beharko dute (7. urratetik aurrera).

Gazteekin saiatu gara gehienbat, helduek baino premia handiagoa eta harremanetarako malgutasun handiagoa dutelakoan. Dena dela, ikastola eta euskal ikastetxeetako ikasleengan erantzun zabalagoa izan badugu ere, adin-muga hori euskara-ikasleek jarri dute. Izan ere, euskaltegietan ez omen dago horrenbeste ikasle gazterik.

Egitasmoa berria izateagatik eta gure esperientzia ezagatik prozedura hasieran uste baino gehiago luzatu bazaigu ere, azkenean zortzi talde (4 eta 6 lagun bitartekoak) eta bikote pare bat arituko dira adin, ordutegi eta eginbehar ezberdinekin.

Espero dugu bai partaideentzat eta bai guretzat ere ekimen polita eta baikorra izatea, eta euskararen egoera Gasteizen zertxobait indarberriturik gertatzea. Gainera, ziur gaude horrek aupada ederra eta nahikoa esperientzia emango dizkigula proiektu honetan aurrera eta aldi berean hobera egiteko, hurrengo batean zeuok, irakurleok, ere mintzalagun izan zaitezten.

GEU elkartea

Eskola Mapa

Ondo egokiak dira 1995eko azaroaren 23an Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura batzordean Inaxio Oliverik esandako hitzak: «Neurri handi batean, herria da bere hezkuntza-sistemaren islada. Edozein gizartetan, hezkuntza-sistema ona garantia bat da. Ordea, sistema hori produktu sozial bat den neurrian, bere ingurunera, hau da, bere gizartera, bere herrira egokitu beharrean da nahitaez».


1990eko urrian Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Lege Organikoa (LOGSE) sartu zen indarrean. Geroztik, lege honek hainbat aldaketa ekarri dizkio unibertsitatez kanpoko irakaskuntzari; izan ere, LOGSEk gure hezkuntza-sistema zaharra Europako sistemetara hurbildu du, eta gaur egungo gizartearen beharretara egokitu. LOGSEk, besteak beste, sistema berri bat ezarri du Oinarriko Hezkuntza Orokorren eta Irakaskuntza Ertainen orde: Haur-hezkuntza, Lehen Mailako Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta, azkenik, Batxilergoa edota Lanbide Heziketa.

Erreforma, dena den, ez da hezkuntza-mailak aldatzera mugatzen. Erreformak filosofia bat du: aniztasunari arreta jartzea; helburua ez da, hortaz, ikasle bakoitzak gutxieneko maila lortzea, baizik eta ikasle bakoitzari aukera ematea hezkuntza-sistema garatzeko.

Esan legez, LOGSEk zenbait maila edo egitura berri ekarri ditu aldean. Horietako bat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza dugu (DBH). Hau hezkuntza-etapa berria da, 12 urtetik 16 urtera arteko gaztetxoentzat, eta bi ziklotan banatzen da: lehenengoa, «prestakuntza orokorraren esparruak eta edukia arloka egituratuta izanik, ikasleak ulermenerako dituen gaitasunak garatzera dago orientatuta». Bigarren zikloak, berriz, «Bigarrenaren Ondoko Irakaskuntzarako prestatzen ditu ikasleak, aukerakotasuna progresiboki zabalduz, baina edukiek arloen inguruan antolatuta jarraituz».

Zer da Eskola Mapa?

1996/97 ikasturtean DBH martxan jarri behar dela jasotzen da LOGSEn. Baina, alde aurretik, zein ikastetxetan, zein irakaslerekin eta nolako eduki kurrikularrez ezarriko zen zehaztu beharra zegoen. Eta hori da, labor esateko, Eskola Mapa: «Hezkuntza Sailaren ekintzarako proposamen bat, sare publikoko ikastetxeen hezkuntza-eskaintza definitzen duena, alegia. Eskaintza horrek, batetik, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen berrantolamendua eta identifikazioa; eta, bestetik, Euskal Autonomi Elkartearen eskola-lurraldea banatuta dagoen hogeitabost Eskola Bilguncetako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikaste-



txeen arteko lotura barne hartzen ditu. Ondorioz, Eskola Mapa plangintzarako eta lanerako tresna da».

Zenbait hilabete joan dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura batzordearen aurrean Eskola Mapa aurkeztu zuenetik. Tarte horretan, Hezkuntza Sailak hezkuntza komunitateko sektore guztiekin (sindikatuak, guraso elkarteak eta ikastetxe pribatuetako titularrak) negoziatu du bere proposamena, eta, oso denbora laburrean jarri dira ados. DBH datorren ikasturtean abian jartzeko beharrak bultzatu ditu sektore horiek guztiak elkarriketak, eztabaidak eta negoziazioak nahi baino arinago egitera. Hala eta guztiz ere, hori ez da oztopo izan akordio zabala lortzeko.

DBH ezartzeak, beraz, hainbat aldaketa eta egokitzapen ekarri dizkio irakaskuntzari. Sare publikoan administrazioak egin du planifikazioa gizarte-sektoreen partaidetzarekin. Pribatuan, berriz, pribatukoek planifikatu dute aurrez jarritako marko baten barruan. Azken sare honi dagokionez, administrazioak ikasgela bakoitzeko ikasle kopuru jakin bat eta beste baldintza batzuk (irakasleen titulazioa, instalazioak...) ezarri ditu. DBH berria denez, elkarriketa ugari izan da zehaztu gabe zeuden baldintza horiek finkatzeko. Ondorioz, datorren ikasturtean kontzertazioa izango dute DBHren ikastetxe pribatuek.

Hezkuntza Sailak aitortzen duenez, sare publikoko Eskola Mapa «Euskal Autonomi Elkartearen lurralde-aniztasunera» ahalik eta gehien egokitzen saiatu dira. Horrek honako hau esan nahi du: «lurralde historiko bakoitzaren ezaugarri geografiko-demografiko bereziak eta, era berean, hiri, erdi-hiri eta landa-areen existentzia kontuan hartu beharra». Gutxieneko kalitate baldintza batzuk bete nahian, Eskola Mapa ikasleengana ahalik eta gehien hurbiltzen saiatu dira. Horren

**Erreformaren
ondorioz, B eta D
ereduko ikastetxe
ugari sortuko dira
Euskal Autonomi
Elkartean**

asmotan, ikastetxeak sortzen ari dira lehen instituturik ez zeukaten hainbat eta hainbat herritan, DBH eskaini ahal izateko.

DBH eta hizkuntz ereduak

DBHk hizkuntz ereduari ere ekarriko dizkie aldaketa batzuk. Orain arte OHOn hiru eredu zeuden (A, B eta D), eta ikasketa ertainetan, berriz, bi (A eta D). Orain, DBHn hiru ereduak egongo dira, eta ondorioz, B eta D ereduak ikastetxe ugari sortuko dira Euskal Autonomi Elkartearen. Horrek, dudarik gabe, bultzada handia emango dio euskalduntzeari.

Administrazioak behar adina azpiegitura sortuko ditu gizartearen premiei erantzuteko. Hainbat kasutan ikastetxe berriak eraikiko dira. Beste batzuetan, berriz, beharrezko egokitzapenak egingo dira. Hori horrela, esan behar da garrantzi handia eman zaiela garraio eta jantoki-zerbitzuei; izan ere, eskola publikoak garraio-zerbitzuak handitzea eta hedatzea eskatzen du, eta, horretan, zerbitzu horiek doan izateak izan behar du irizpide.

Horrekin batera, DBHko ikasleek goizez eta arratsaldez ikasiko dutenez, jantokiak hobetu beharra ere ikusten dute; eta kasu askotan jantoki berriak egin behar izan dituzte.

Eusko Jaurlaritzak 10.240 milioi pezetako aurrekontua aurkeztu du DBH ezartzeko datozen hiru urteotan. Aurrekontu horretako diru-kopururik handiena (6.000 milioi inguru) DBHko ikastetxe berriak egiteko eta daudenak egokitzeko erabiliko da. Gainontzekoa, berriz, ekipamendu, garraio, jantoki eta irakasleen prestakuntzari emango zaio.

Horrenbestez, Eskola Mapa definituta dago. Aurrerantzean hezkuntza komunitatearen piezek mapan barrena ibili beharko dute. Eta ibiliak berak moldatu eta eraldatuko du egungo proiektua.

Eskola Mapari buruzko gogoeta batzuk

Espero dezagun erreformak irakasleentzat dakartzan alde positiboak irakaskuntzaren kalitatearen eta beharrezko egokitzapenak egitearen mesedetan izatea. Gure seme-alabak gizarteak eskatzen duenari erantzuteko prest egotea nahi dugu, hau da, prestakuntza akademiko ona eta garaian garaikoari egokituia eman nahi diegu. Azken batean, gazteek beraingan jarritako itzaropenari erantzuteko gai izan behar dute, eta laguntza eman gizarte hobea eraikitzeko.

Erreforma martxan jartzeak, erreformaren jarraipenak, eta Eskola Mapa berria egiteak buruko min galantak eman dizkie, eta oraindik ere ematen dizkie, hezkuntzako sektore guztiei.

Aspaldidanik hezkuntzan partaidetza handiagoa eskatzen genuen gurasoek erreformaren eta Eskola Maparen bidez aukera ikusi dugu hezkuntzako arlo guztietan partaidetzaren beharrari buruzko kontzientziazio handiagoa sortzeko. Gurasoek hezkuntzan egiten duten lanaren onespina ere ikusi dugu, batez ere, ikastetxeetan lortu dituzten emaitzetan, beraien eguneroko lanean...

Horregatik, Eskola Maparen proposamena egitea erabaki genuen, bertan gure sentimenduak argi azaltzeko: zer nahi dugun gure seme-alabentzat; guretzat zer den Euskal Eskola Publikoa; euskalduntzea nola planteatzen dugun; kalitatea lortu ahal izateko berdintasunari, soli-

daritateari eta beste balore batzuei ematen diegun garrantzia; jantokiak, garraioa eta beste zerbitzu batzuen beharra etab.

Hasiera-hasieratik argi genuen zein izango ziren aurkituko genituen zailtasunak: guztia ezin aldatu, denbora falta, baliabide urriak..., baina, hala eta guztiz ere, lanari ekin genion; eta orain, adostasun zabaleko Eskola Mapa daukagu, hainbat zonaldek egindako eskariei egokituia, eta gurasoen babesa eta exigentzia duena.

Erreformaren aurrerapauso guztiak defendatzeko prest gaude, eta baita Eskola Mapa edukiez betetzeko eta hobetzeko ere; horregatik, berriro, jende guztia gonbidatzen dugu bide honetatik lan egitera.

Eskola Mapa berria egiteak buruko min galantak eman dizkie hezkuntzako sektore guztiei

Ana Eizagirre
Bizkaiko Gurasoen Elkarteko lehendakaria





Eneko Oregi,

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea

Zer deritzozu Eskola Mapari?

Ondo baino hobeto baloratzen dut. Euskal Autonomi Elkartearen 25 eskola-bilgune daude. 25etik 22tan lortu da adostasuna, gehienetan Hezkuntza Sailak egindako proposamena onartu dutelako. Hiru eskola-bilgunetan, berriz, ez da adostasunik lortu nahiko iritzi kontrajarriak zeudelako eskolan bertan. Nik esango nuke akordioa zabala dela: sindikatuekin, guraso elkartearen federazioekin eta ikastetxe pribatuetako titularrekin lortu da akordioa. Normala da kaltetutako sektoreak, herriak, zentroak... izatea, eta arazo horiek konpontzen saiatzen ari gara eta konpontzen segituko dugu. Baina, dudarik gabe, Eskola Mapak balio du eskola publikoetan zein pribatuetan DBH kalitatez ezartzeko.

Zer ekarriko dio praktikan Eskola Mapak irakaskuntzari?

DBH eta Eskola Mapa bera esparru bat dira, marko bat. Baina hori bete beharra dago. DBH proiektu berri bat dela esaten dugunean, edo EAEn 120 ikastetxe berri sortuko eta sortzen ari direla esaten dugunean kontu bat argitu beharra dago: gauza bat da sortzea, eta beste bat, oso bestelakoa, hezurramitzea. Proiektu horretan, irakasle, ikasle eta guraso batzuk izango dira. Horiek landu beharko dute ikastetxearen proiektua, eta hori ezin du beste inork egin. Administrazioa prestakuntzako ikastaroak bultzatzen, antolatzen eta ordaintzen ari da; materialak sortzen ditu etengabe; orientazioa ematen ari da ikastaro eta jardunaldien bidez... Baina, azkenean, hezkuntza da irakasle batek bere ikasgelan irakasten duena.

Badirudi Lanbide Heziketari bultzada eman zaiola.

Nire ustez, Erdiko eta Goi Mailako Prestakuntza Zikloak (lehenengo Lanbide Heziketa ordezkatzen dutenak) ezartzea da erreformaren alderik garrantzitsuenak. Lanbide Heziketa berri hau ez da izango orain arte zegoena bezalakoa. Orain arte, nolabait esateko, Lanbide Heziketa bigarren mailako irakaskuntza zen, batxilergoa ikasi ezin zutenentzat-edo; irudi hori zuen, behintzat. Orain, ordea, erreformarekin irakaskuntza teknikoek profesionaltasunaren bidea hartuko dute. Ezinbestekoa iruditzen zaigu, herri garen aldetik, Lanbide Heziketa indartzea, eta, beraz, ikasle onak hortik bideratzea. Hortaz, horiek izango dira 1990/2000 eta 2000/01 urteetarako izango ditugun erronka nagusiak. Eta apustu horretan, jokoan asko du gure gizarteak.

Diskriminatua sentitu al da sare pribatua?

Ez, Euskal Autonomi Elkartearen behintzat ez dut uste. Gure Autonomi Elkartearen eskola pribatua kontzertatuta dago oso proportzio altuan. Gelako ematen zaion finantziazioa Estatuko beste inon baino altuagoa da, askoz altuagoa. Sare pribatukoekin daukagun harremana ona da, eta etengabe hitz egiten dugu arazoak elkarrekin aztertzeko eta horiei irtenbidea ematen saiatzeko; beraz, ez dago inongo arazorik alde horretatik.

Eta, zertan da euskalduntzea?

Euskalduntzeak aurrerapauso dexente egingo du erreformarekin. Hezkuntza Sailak, bere aldetik, gizartetik datorren eskaerari erantzuten dio. Hauteskundeetan gurasoek lau urterik behin ematen dute botoa; baina, eskolan, berriz, urtero egiten dute aukera seme-alabak matrikulatzerakoan; eta ikastetxe batzuetan, eta eredu batzuetan matrikulatzen dituzte. Horixe da gurasoen aukera, eta Hezkuntza Sailari dagokio egiten duten hezkuntza elebidunaren eskaera horri erantzutea. Alde horretatik, nik esango nuke gure erantzuna gero eta handiagoa dela.

Ba al dago dirurik erreformarako?

Behin ere ez da egongo guk nahi adina. Hala ere, gizarte eta herri baten etorkizunerako ez dago ezer hezkuntza baino garrantzitsuagorik, eta garrantzi hori aitortu egin behar dugu. Gaur egun, oraindik ere urrutik samar gaude Europako hainbat herrialdetan hezkuntza arloan gastatzen diren diru-kopuruetatik. Segur aski, datozen urteetan erakundeek diru gehiago jarri beharko dute gure gizarteak hezkuntzan dituen beharrak asebetzeko.

Nondik iritsi zaizkizue kritikarik zorrotzenak?

Zorrotzenak baino gehiago, zakarrenak esango nuke nik. Kritika horiek zenbait alderdi politikotatik etorri dira, eta, bereziki, euskararen ingurukoak izan dira. Sindikatuekin elkarriketa luzeak izan ditugu, baina, poliki-poliki, ados jartzea lortu dugu. Guraso elkartearen federazioekin ere adostasun zabala lortu genuen Eskola Maparen eztabaida prozesuan. Ikastetxe pribatuekin ere ados jartzen ari gara. Beraz, kritikarik zakarrenak zenbait alderdik egin dituzte, PPK nagusiki, euskalduntzearen tratamendua dela-eta. Dena dela, nire ustez, bide onetik goaz.

Lutxo Egia
Kazetaria

Erdarazko erlatiboen itzulpenak

Erdarazko testuak euskaratzen aritu direnek ongitxo dakite erlatiboak izaten dela aurkitzen den buruhausterik handienetakoa; bada, artikuluxka honetan, arazo hori apur bat jorratu nahi dut, baina era honetako gramatika ikerlanetan ohikoa ez den ikuspegi batetik: hau da, hemen emango ditudan adibideen bitartez ikusi eta erakutsi nahi dut nolako irtenbide desberdinak egon daitezkeen batzuetan erdarazko esaldi erlatiboaren korapiloak askatzeko. Nolanahi ere, aldizkari honetan ezin atzerlan luze-zabalegia egin, eta informazio ugariagoa nahi duenak SENEZ aldizkariaren 15. zenbakira jo dezake (1994. urtea).

Hasteko, garbi dago hizkera arruntean erdaraz askoz joera handiagoa dagoela erlatiboak erabiltzeko euskaraz baino, ondoko adibideek erakusten duten bezala:

Gran cosa es saber el lugar donde está escondido.

Gauza handia bait da, izan ere, non ezkatutua dagoen ziur jakitea.

Esta es el arma con la que asesinaron a Prim.

Arma honexekin hil zuten Prim.

Lehenean ikusten denez, erdaraz izen sintagma bat (*lugar* sustantiboa + *osagaia*) erabiltzen du, eta euskaraz zehargaldera, galdeztzaile (*non*) baten inguruan. Eta bigarrenean, erdaraz erlatiboak nahiago du galdegaia markatzeko; hari honetatik, esan dezagun euskaraz gero eta gehiago aurkitzen direla era horretakoak ere:

Él fue quien me contó que habías tenido un accidente.

Bera izan zen istripua izan zenuela kontatu zidana.

Baina garbi dago erlatiboaren beharrik ez dagoela derrigor (*Berak kontatu zidan istripua izan zenuela*); planteiamendu honekin, hau da, euskaraz gutxiago erabiltzen bada erlatiboak, kontua da jakitea zer erabiltzen dugun horren ordez. Eta, ez bairik gabe, baliabide asko ditugu eskueran. Ikus dezagun kazetaritzakoa izan litekeen esaldi bat:

El Presidente, que se encuentra estos días de visita en París, ha declarado su apoyo a la política exterior de Francia.

Badirudi erlatiboak erabiltzea (hau da, *Presidenteak, egun hauetan Paris bisitatzen ari dena...*) ez dela oso zuzena, edo behintzat nahasgarria dela, bi eratara uler litekeelako (bata: *El presidente, que se encuentra...*; bestea: *El presidente, el que se encuentra...*); eta bigarren kasuan presidenteen arteko bati buruz ari gara, ez Presidenteez. Efektuaz ondo jabetzeko, *presidente* hitzaren ordez, ipini *nire osaba*, esate baterako, eta galde zeure buruari zein osabari buruz ari den.

Bada, arazo hori albo batera utz dezakegu, erdarazko esaldia beste era batera antolatuz gero (beti ere esanahia ezertan aldatu gabe, noski).

El Presidente, durante la visita que está realizando estos días a París, ha declarado...

Eta euskaraz ere errazago irtingo zaigu bide horretatik. Ikus dezagun:

Presidenteak, egun hauetan Parisen egiten ari den bisitan, Fran-

tziazen kanpo politikaren alde azaldu da.

Ondoko adibidea ere kazetaritzakoa izan daiteke (hizkera berezi honetan, labur beharrez, erlatiboak oso erabilia dela esan behar da), eta, ikusiko dugun bezala, perpaus erlatiboaren ordez denborazkoa jar zitezkeen:

El avión, que se disponía en esos momentos a aterrizar, fue abatido por un misil.

Edo:

El avión fue abatido por un misil cuando se disponía a aterrizar.

Eta euskaraz:

Hegazkina, lurra hartzera zihoala, misil batek suntsitu zuen.

Koma artean jartzen diren erlatiboak (erlatibo esplikatiboa deitzen zaie, erreferenteari buruzko azalpen huts bat egiten dutelako) arazo franko ematen dizkigute itzultzaileoi; baina esplikatiboak ez direnak (hau da, erdaraz koma artean jartzen ez direnak) ere bai. Ikus dezagun ondoko esaldia, eta euskarazko bi itzulpen desberdin:

Nos acaba de llegar una nota en la que se afirma que aviones de la OTAN han bombardeado algunas posiciones serbias.

a) *Ohar bat iritsi zaigu oraintxe, NATOren hegazkinak serbiarren posizio batzuk bonbardatu dituztela diotena.*

b) *Oraintxe iritsi zaigun ohar baten arabera (edo batek dioenez), NATOren hegazkinak serbiarren posizio batzuk bonbardatu dituzte.*

Beste batzuetan, aldiz, esaldi konplexuagoen osagai desberdinak beste era batera kokatuz gero, gauzak erraztu egingo zaizkigula ikusiko dugu, adibide honetan bezala:

Ayer se produjo un robo en el Museo Guggenheim de Bilbao. Los ladrones, que robaron una escultura de Oteiza valorada en 100 millones de pesetas, se hicieron pasar por trabajadores de la limpieza.

Erlatiboarekin itzuli nahi izanez gero, honela geratuko zaigu:

Atzo lapurreta gertatu zen Bilboko G. Museoan. Lapurrak, Oteitzaren 100 milioi pezetako balio zuen eskultura bat eraman zutenak, garbitzaile gisa azaldu ziren.

Zer esanik ez, itzulpena traketsa da, besteak beste osagai gehiegi pilatu dituelako, edo ez dituelako behar bezala kokatu. Baina, konturatuko garen bezala, osagai horiek beste era batera antolatzen baditugu ere, mezuak bere hartan jarraituko du:

Atzo Oteitzaren eskultura bat lapurtu zuten Bilboko G. Museoan garbitzaile gisa azaldu ziren lapur batzuek. Eskulturaren ustezko balioa 100 milioikoa da.

Beraz, inoiz ere beste muturrera joan gabe (hau da, erlatiboak inoiz ez erabiltzeko joera hartu gabe), hona hemen nire gomen-dioa erdarazko erlatiboak itzuli behar dituenarentzat: aztertu ongi beste era batera esaterik ba ote dagoen erdaraz mezu berbera, esanahian inolako galerarik eduki gabe. Beharbada, konponbide hobea izango da, itsu-itsuan erlatiboak erlatibo baten ordez eman beharrean.

Koldo Biguri
Itzultzailea

Erdaraz askoz joera handiagoa dago erlatiboak erabiltzeko euskaraz baino

BILBOTOWN (BASQUE HERRY), 2196

SINOPSISIA

Mundu Garatuak administrazio bakarra du, tokian-tokiko azpiadministrazioetan antolatua, eta hamar urte joan dira lan eta harremanetarako hizkuntza ere bakarra denetik: ingelesa. Hamaikagarrenez, Basque Administrationeko langile batzuk matxinatu egin dira. IVAP-HAEEko Bilbotowneko building garrantzitsua matxinatuen esku dago.

Ezinbestekoa dela anglosaxoitze administratiboa esango die, bai, ezinbestekoa, hizkuntz hibridazioa zabaltzenagotuz baitoa, batik bat mendebaldeko herrialdeetan, eta gizarte maila kasik guztietan gainera. Ezinbestekoa dela birtziklaia esango die, eta ebitaiezina ere bai politikoki, maila planetarioaz ari direlako, ez Afrikako tribu ziztrin batez, Europako hizkuntza gehien hibridazio prozesua geldiezin delako. Hizkuntz ordenurik ezarri ezean kaosa etorriko litzatekeela bestela, eta agintariei ez zaiela kaos hitza ostiapurripe gustatzen, endemas agintariei, beharrezko baitute kontrolpeko egoera, kontrolpeko desordenua bada ere. Komentzitzeko edo berera ekartzeko horrelakoak aipatuko dizkie Marino Basarana matxino-espezialist adituak Bilbotowneko building madarikatu horretan entzerraturik eta armaturik ei dauden funtzionario arriskutsuei, oraindio desagertu ez den eta hibridatze naturalari uko egiten jarraitzen dion gizon-emakume taldeari, temati segitzen duena basquez beharrean euskaraz egiten. Atzerakoi halakoak! Primitiboak! Marino Basarana buildingera ailegatu da. Linguazainek akordonatuta dago. Hizkuntz poliziari deitzairena usadio bihurtu da honezkerok, ez baita lehenengo aldia protestak daudena Basque Administrationaren egoitza jendetsuetan, buildingetan. Espezializazioa zen munduko administrationetako atal orok aspaldi tajututako alderdia, eta beraz poliziak ere prest behar zuen egon balizko egoera den-denetarako. Patata biltzailerek protesta eginez gero Patatazaintza arduratuko zen, xagu maltzur bat etxe kristauren batean bazterrak nahasten bazituen hara ziren saguzainak... eta hizkuntz aldarrikapen estrainiorik edo arriskutsurik jazota, linguazainek hartuko zuten ardura. Gaurkoan bezalaxe, kasu.

Sarjento batek hartu du Marino eta linguazain-buruarengana eraman.

– Helou! Klarky explaingo dizut zituona. Agintariak beldur eta afraid dira erreboluona beste townetara zabalduko ote den. Lait berdea dugu denak killtzeko beste erresortik ez bada. Eta ez dugu beste txanzerik ekzept akordiorako azken saioa egitea baino. Zu zara akordiotan spezialist, mister Basarana, matxino-espezialist. Ezer lortzen ez baduzu asaltatu egingo dugu buildinga, edo destroy.

– Okey. Errenditzeko oportunitate bakarra dutela esango diet.

– Okey. Guot behar duzu?

– Ezertxo ere ez. Guai kuestionatzen didazu hori?

– Eskatzen dituztenak sistemarako danjerotsuak direlako. Funtzionario horien eskakizunak konpletuky onartezinak direlako. Garuneko txipa ez dabilkie O.K. eta euren kabuz pentsatzen hasi omen dira. Baina zientzilariek diote hori absolutuky inposibil dela. Ez dakigu guot pentsa.

– Lasay, solutiona topatuko diot korapiloari.

Marino Basarana matxino-espezialist handia, dena konponduko duelako ustean, barrura da pauso biziz. Bitxia iruditu zaio garuneko txiparena. Laster mendea egingo du, belaunaldi bat beraz,

garuneko nerbio-sistemari atxikitutako mikrotxip adimentsua asmatu zenetik, biztanle orok eraman beharrekota jaiotzetik bertatik. Marinok ere badu, noski. Kale garbitzaileek badute. Basque Administrationeko presidenteak berak ere bai. Aita Santuak ere bai. Mundu Garatuko agintari gorenek ere bai.

Pasabide luzea korritu du, eta muturrean emakume laser-errifleduna dago, zeinek polikiro sartzeko diotson.

Handik gutxira mahai batean da, gizon-emakume birekin negoziaketetan hasteko prest, gauzak beren tokira ekartzeko prest. Horretarako ordaintzen diote. Eta bera profesionala da.

– Okei. Guai zaudete hemen eta guot nahi duzue? Explaingo dizuet building hau ez dela...

– Ixo, guai-ostia hori, ixo! –diotso gizonetzkoak-. Ez al duzu ikusten ze patetikoak zareten horrela hitz egitean? Konturatu ez bazara hemen gauden guzti-guztioi garuneko txipa herdoildu-edo egin zaigu, zorionez, eta gure ingurukoaz jabetu gara. Dena ulertzen dugu orain.

– Okei, baina...

– Ixo! –diotso orain emakumezkoak-. Entzun egingo duzu orain entzun beharrekota. Guk eskatu nahi duguna gauza ttikia da oso. Txip nazkagarri horiek hitz eragiten

zaitzute horrela. Ez dakigu nork asmatuko zituen orain laurogeita hamar urte, baina argi dago hizkuntzaz hibrida gintezen asmatu zituztela, seguruenaz amerikarrek laugarren mundu gerraren ostean. Eta ia-ia lortu zuten helburua, ume jaioberri guztiei iltzaten baitzikiegu gaur egun. Kontua da, zergatik ez dakigula, hasiera-hasieratik gutxi batzuegan ez zuela eraginik izan, entzerraturik gaudenon aita-amengan adibidez, eta gugana heldu dela inkompatibilitate genetikoa. Eta beste huts tekniko bat ere izan zuten, hibridazioa ez baitzen espero bezain ondo gertatu. Eta ingelesez egin beharrean euskalinglix mordoilo hori darabilgu, darabilzue. Baina lasai egon, mister, gure eskakizunak ez baitoaz inposatu nahi diguten ingelesaren aurka, ezta zuen mordoilo hizkuntzaren aurka ere, ezpada oinarri-oinarriko zerbaiten alde, gure eskubideak errespetatzeko bermea. Ulertzen? Horixe da nahi duguna, maitasuna egin euskaraz, euskal hitzez umeak laztandu eta zaharrak zaindu, gaixoei euskarazko beroa eman, kalean euskaraz egin Marteko presondegi-tara edo meatzetara bidaliak izateko beldurrik gabe... eta administrationean barik administrazioan lan egin...

Marino Basarana kalera irten denean etsipen keinu bat egin dio linguazaintza-buruari, honela esanez:

– Diplomazy K.O. da!

Bularra puztuz eta txanda heldu zaionaren pozaz, linguazain-buru sarjentoari mintzo zaio orain.

– Prestatu bonbatxo termonuklearrak eta protektionerako geruza. Destroy behar dugu building hau. Yeah!

Armatu-rik dauden funtzionario arriskutsuek hizkuntzen hibridatze naturalari uko egiten jarraitzen dute

Josu Lartategi
Irakaslea eta itzultzailea

Ararteko edo euskarazko hitz birmailegatuak

Ez dakit egokiak diren *birmailegu* eta *birmailegatu* hitzak, ondo eratu ote dauden euskaraz. Hor dugu «berrelkarketa», berriro elkartzea dena. Egokia nahiz ezegokia, neuk asmatutako hitz horren azpian dagoen kontzeptua izendatzeko balioko dit, artikulu honetan behintzat; hau da: mailegutan emana berriro mailegutan hartzea, prozesu horren ondorioz esanahia aldatuaz (gehienetan murriztuta). «Ararteko» hitza aukeratu dut gaia azaltzeko, nabarmenena bera bide delako.

Arartekoaren figura, guri (euskarari), izenarekin batera etorri zitzaigun. Ez gara sartuko hitzaren sorreran, baina inguruko ereduak ikusirik (Espainian: *Defensor del Pueblo*; Frantzian: *Médiateur*) iparraldekoa hurbildu zen bitartekotasuna-edo adierazi nahirik. Euskal Herrian daukagun ararteko bakarra izendatu behar eta Ararteko jarri zitzaion beraz. Euskaraz lehenengoz izendatu behar izan dugunean, hitz hori erabili dugu, ez besterik. Berba hori gure arartekoaren izena da (espezifikoa), baina euskaraz orokorrean mundu zabalean dauden halakoak izendatzeko daukan hitz bakarra ere bada (generikoa). Harez gero, oster, berba horren erabilera desbideratu egin da, besteak beste, erdararekiko menpekotasunagatik.

Hiru kontzeptu daukagu gure eremuan: bat generikoa eta bi espezifikoak. Generikoa: «Herritarren eskubideak babesteko, administrazioaren jardura aztertzen eta ikuskatzen duen erakundea edo pertsona» (Administrazioa Hiztegitik ateratako behin-behineko definizioa). Espezifikoak: 1- Euskal Herriko erakunde edo pertsona hori; 2- Espainiako (x herrialdeko) erakunde edo pertsona hori. Eta hizkuntza bi daukagu kontzeptu horiei izendatzailea jartzeko: euskara eta gaztelania (x hizkuntza). Zertaz eta zein hizkuntzatan gabiltzan konturatu behar dugu, aldagai biak gurutzatuz emaitza ezberdinak aterako ditugu eta.

Gaztelaniaz *Defensor del Pueblo* esaten diote bai eurenari (espezifikoa) bai edonongoari (generikoa; esate baterako: *El defensor del pueblo de x*), eta, gainera, azken kasu honetan, tokian tokikoari, norbere jakituriaren arabera, dagokion izena ezartzen diote batzuetan. Adibidez: *El Ararteko* (1) esaten dutenean gurea adierazi nahi dute. Baina hori gaztelaniaz da, kontuz! Hitzek ez daukate esangura bera hizkuntza guztietan, beraz, hitz horren esanahia zein den argitzeko zein hizkuntzatan ari garen jakin behar dugu, esan bezala.

(1) Figura berri hau zer den azaltzeko egin ziren lehenengo orritsoetan horrela idatzi zuen Arartekoak gaztelaniaz, ahoskera zuzena bultzatzeko; ona litzateke gaztelaniaz erabilera hori zabaltzea, hau da, azentu eta guzti.

Beste erdal birmailegu batzuk

Berdin gertatzen da euskarazko hitz mordo batekin: gaztelaniaz euskarari hartu izan dizkio bereziki Euskal Herriko gaiak izendatzeko (esanahiaren murrizketa), eta, horren ondoren, euskal hiztunon hizkuntza-menpekotasunagatik, euskaraz ere euskal hitz horiei esanahia murriztu egin behar diegulakoan gaude, gaztelaniaren erabilera logikoari jarraituaz. Bestetara esanda: jatorriz euskal hitza denari erdararen eraginez esanahia murrizten badiogu, ez da euskal hitza, erdal birmailegua baino.

Jatorriz euskal hitza denari erdararen eraginez esanahia murrizten badiogu, ez da euskal hitza, erdal birmailegua baino

Esate baterako hor ditugu antzeko egoeran: *abertzale*, *ertzain* (euskaraz ere **ertzaina* bihurtua), *ikastola*, *ikurrin* (euskaraz ere **ikurriña* bihurtua), *lehendakari*, *muga* eta beste hainbat. Euskaraz esanahi zabalagoa eduki arren (generikoa), gaztelaniaz euskal arloari aplikatu dizkionez (espezifikoa), gu erabilera horretara lerratzen ari gara. Jakina, denak ez daude egoera berean, batzuetan euskal gizartearen bilakaera dela eta euskarak berez espezializatu ditu hitzak: *ikastola*-ren kasua kasu; eta hori ona da hizkuntzak beregain, askatasunez eta berez egin badu,

baina guztiz kaltegarria eta hondagarria, menpekotasunak eraginda bada. Horra hor gako.

«Ararteko» zer den galdetzen dugunean beraz, ze hizkuntzatan dihardugun jakin behar dugu. Euskarari dagokionez, hona hemen, bide batez, aukeratutako adibideari buruzko proposamena: **Arartekoa** generikoa (euskaraz edozein izendatzeko, kasu guztietarako) eta espezifikoa (Euskal Autonomia Erkidegoko izendatzeko); **herriaren defendatzailea** edo **Espainiako arartekoa**, espezifikoak (Espainiako izendatzeko). Bestalde testuinguru internazional jakinetan **ombudsman** ere erabil litekeela deritzot generiko moduan. Azken batean, beste hizkuntzatan egiten dena: norbere hizkuntzako hitzak orokorre-rako balio du eta beste hizkuntzetakoak espezifikoko bakoitzetarako.

Kontuan izan dezagun hitz berak bi hizkuntzatan forma bera izan arren esangura ezberdina izan dezakeela –eta euki daukala– hizkuntza batetik bestera. Birmailegua benetako arriskua da euskararen moduko hizkuntza ahulentzat. Erne egon gaitezen beraz; bestela, laster hasi beharko dugu *zuloa* –zulo arrunta– izendatzeko hitz berri bila, gurea arma-gordeleku esateko murriztuko dugu eta.

Jon Agirre
Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko burua (HAEE)

Puntuazioaren sintomatik sintaxiaren gaitzera

Aski gauza jakina da gure egunotan hizkuntzarekiko axolagabekeriak, besteak beste, ia gutembergkeria arkaikotzat jotzen duela komak-eta zuzen erabiltzeko ardura. Uste arrunt batek nahi luke puntuazioa (irakurtzerako) arnasketaren laguntzaile soil izatea (hala izatera, biologoek agindu beharko lukete komak non jarri). Badirudi justu beste muturrean aurkitu behar dela, nagusiki, puntuazio-konbentzioen arrazoiak: semantikaren eskakizunetan, alegia. Besterik da aitortzea, ondo gogo onez aitortzen dudana bezala, alderdi fonikoak zerikusi zuzena duela puntuazioarekin.

Izan ere, intonazioaren proiektioztat jo daiteke, lege onez, puntuazioa. Zer da, ordea, intonazioa, *zentzuaren* proiektio bat baino? Hala, puntuazioaren eginkizuna zera litzateke: esaldien zentzua argitzen laguntzea, intonazioa nola edo hala islatuz. Kontutan har bedi intonazioaren gorabeherak infinitu samarrak direla, eta puntuazio-kodea, berriz, oso mugatua.

Euskarazko kodearen gorabeherak

Eta zertan da euskarazko kodea? Gurean espainierarena itsu samar (asko begiratu gabe, ez zintzo-zintzo, esan nahi dut) aplikatzen delakoan nago, eta horrek ondorio negargarriak dakartza, ikusiko dugunez. Eta ez, kasu honetan, erreferentziarako kodea frantsesa duketen euskal hiztunak baztertzeko dituelako bereziki, baizik gerta daitezkeen bi gauzarik okerrenak gertatzen zaizkigulako horrenbestez: kodea ez dagoela gure hizkuntza hain desberdin honi egokitu, batetik, eta, bestetik, bere txarrean bat zintzo errespetatzea on litzazigukeelarik, zabar antza baino ez dugula aplikatzen auzo-erdararen kodea (esan gabe doa zenbait kontutan aski litzazigukeela hori).

Egoera hori izanik, balizko euskal kode berezi guztiz jator eta egoki baten ametsa ametsatarako utzirik oraingo, eta arau-bazterrak nahasten nahikoa jende dabilenez dagoeneko, zuhurrago dirudi duguntzetik abiatuz guretzat ahalik eta funtzionalen izango den moduan egokitzea kode mailegatu hori, eta behingoz finkatzea geure kode esplizitu bat, erreferentzia gisa bederen nora jo izan dezagun.

Kodea mailegatu duguneko hizkuntza espainiera izaki, ez harritu harekiko konparaketaz baliatzen bagara, antzekotasunak *de facto* onarturik, puntuazioan eragina izango duten desberdintasunak agerian jarri eta dagozkigun ondorioak ateratzeko bidean. Desberdintasun funtsezko horietako bati helduko diogu hemen, sistematiko samarra denez kolpe batetik hainbat puntuazio-zalantza (edo, okerrago dena, zalantza izatera ere iristen ez den nahasmendu) argitzen lagun dezakeelakoan.

Ez dago misteriorik, hizkuntza bakoitzaren egiturak baitu bere koherentzia: euskarazkoan, atzizkiek edo posposizioek markatu ohi dutenez aurretik daramaten perpausaren –funtzioa ezezik– muga, perpaus hori beste osagaiaren aurretik badoa ez dago zalantzarik zein osagai zein perpausi dagokion, eta ez dago ezer

zintzilik utzi beharrik ere esaldia osatzen duten perpausen (edo sintagmen) artean (erdaraz alderantziz justu, bistan denez).

Arinkeriaren bidetik nahasmendura

Horrexegatik, erdarak ematen duen printzipiozko aholku-agindu ezaguna, hots, menpekoa aditz nagusiaren aurrera aldatzen bada (bere posizio *normaletik*) koma jartzeko, guk berdin aplikatu beharko genuke, baina kontutan harturik posizio normala justu kontrakoa dela, bi hizkuntzen kasuan ere posizio-aldaketa horrek perpausen (eta batzuetan are sintagma soilen) mugak zalantzarik bihurtzea baitakar, marka –aurretikoa batean eta atzetikoa bestean– ez dagoelako horretarako funtzionala den posizioan:

Sin que la señorita se enterara, se lo comió.

Jan (egin) zuen, andereñoa konturatu ere gabe.

Esaldi konkretu horretan, erdaraz, bigarren esaldiaren aditza berehala datorrenez, eta *se lo* horrek aurreko perpausaren zati izateko inolako itxurarik ez duenez, ez litzateke deus larririk gertatuko koma ahaztuko balitzaigu; baina, euskarazko nahasbidetsuago suertatzen da koma gabe, eta, kasu honetan (eta iraganeko adizki guztietan berdin) erlatibozkotzat ere har daiteke *jan zuen* hori: *Jan zuen andereñoa konturatu ere gabe.*

Bada, hain garbi dirudien hori (alegia, komaren eginkizuna, inon bada, hortxe dela funtsezkoa) jende askorentzat ez dago batere garbi (ilun ere ez, beharbada, ez baita inoiz, ez gauzez eta ez egunez, beren burutik horren errainurik ere pasatu). Areago, buruko freskura hori freskura erabatekoa bihurtzen baitzaie askotan, irribarre-erdi batekin esango dizute: «Hori komak jarri beharra zurea!»

Eta ez dute arrazoirik falta, zeren, nik bederen, koma jarri behar patologiko bat sentitzen baitut jarri beharra dagoela ikusten dudana guztietan. Gainera, beste arrazoi boteretsu bat ba bide dute halakoek beren alde –funtsezkoena, apika–: *espainieraz ez da jartzen, eta jartzen bada, aldatu egiten da esanahia.*

Horren izenean andereñoak jateko (edo janarazteko) prest dauden modernoz-jator horiek, hori eta *estetika grafiko* halamoduzko bat bandera dutenek, kanibalismo letrazko hori baino bekatu handiagoa egiten dute (akaso gure egunotan egin daitekeen larriena, erruz biltzen baititu jarraitzaileak): arinkeria. Alegia, arin-arinka gauzen gainetik pasatzeagatik, arazoan astuna astunagotzen dutela.

Azalpen hau amaitzeko, eta normalean jendeak eskatzen duen errezeta simple batean biltzeko ukitu dugun alderdia, hona arau-proposamen gutxieneko bezain simple hau: aurretik markatzailek ez duten esaldi menpekoak (gehien-gehienak), perpaus nagusiaren atzetik badatoz, komaz bereizi, printzipioz.

Juan Garzia
Idazlea

Puntuazioaren eginkizuna esaldien zentzua argitzen laguntzea da, intonazioa nola edo hala islatuz

Mugikortasuna administrazioan

A. Zer iruditzen zaizu EAeko funtzionarioek lehiaketa bidez administrazio batetik bestera lanpostuz aldatzeko aukera izatea?

B. Zer ondorio dakar horrek?

1989ko ekaineko Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 57.1 atalak honako hau dio: «Lege honen eremuan sartzen diren funtzionarioek lanpostuz aldatzeko duten eskubidea aitortzen da». Eta, 57.2 atalak, halaber, honako hau: «Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioek, lanpostuak betetzeko horietako edozeinek egindako deietan eskuhartu ahal izango dute».

Hala ere, administrazioetako lanpostu-zerrendetan ezarritakoaren arabera, orain arte mugikortasunari oztopoak baino ez zaizkio jarri. Lanpostuak betetzeko deiek oso modu itxian funtzionatu dute, alegia, deia egiten duen administrazioko langileei begira beti.

Joan zen urtean Arabako Foru Aldundiak lanpostu batzuk betetzeko lehiaketa antolatu zuen. Lehiaketara Bizkaiko Foru Aldundiko hiru funtzionario arabar aurkeztu ziren, eta Arabako Diputazioak esan zien ezin zutelako eskurik hartu. Hiru funtzionarioek errekurtsioa jarri, eta aurtengo martxoan beraien aldeko epaia kaleratu da.

Aurrerantzean, epai hori garrantzitsua izan daiteke mugikortasunaren ilunak argitzen hasteko.



Elisa Felix
LAB sindikatuko ordezkaria

A. Mugikortasuna Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak onartutako eskubidea da, baina, orain arte, Gobernuak, foru aldundiek eta udalek ez dute bete. Mugikortasuna helburuetako bat dugu euskal administrazio publiko bakarra defendatzen dugunok. Hala ere, langile askok lantokiz edo kategoriaz aldatzeko aukerak guz-

tiz murriztuta ditu, ezin delako mugitu gaur egun dagoen administrazioetik.

B. Gaur egungo legediak funtzionarioei bakarrik aitortzen die lanpostuz aldatzeko eskubidea. Dena dela, garrantzitsua da eskubide hori gainontzeko langileei zabaltzea (laboralei...), eta baita lanpostu eta euskal administrazio guztietara ere.



Javier Naveda
ELA Administrazioa

A. Administrazioen arteko mugikortasuna aspaldiko helburua da ELArentzat. Kontuan izan behar da Funtzio Publikoari buruzko Legeak eskubide hori jaso ezezik, garatzeko gonbitea ere egiten duela. Zazpi urte igaro ondoren, eta gure herrirako duen garrantzia aintzat harturik, ez dugu ulertzen zergatik ez dagoen martxan.

Berriki izan den epaia dela-eta, gure nahia alderdi politikoei gai hau behar bezala bultzatzea da.

B. Mugikortasunak ondorio ugari dakar. Labur esanda, gure administrazioa homogenoagoa, malguagoa eta merkeagoa izango da, eta herritarrongandik hurbilago egongo da.



Joaquin Villa
Lehendakaria
eta Araugintza departamentuko
foru diputatua

A. Gure ustez, EAeko administrazioetan funtzionarioak batetik bestera mugitu ahal izatea onuragarria eta ezinbestekoa da funtzio publikoa egituratzeko gure herrian. Onuragarria da bai funtzionarioentzat bai administrazioarentzat. Alde batetik, mugikortasunak aukera berriak dakartzkio funtzionarioari: beste lanpostu batzuetara iritsi ahal izatea, esate baterako; eta akuilu izatea bere jarduera profesionalerako. Eta, bestetik, administrazioari ere egiten dio mesede: mugikortasunak giza baliabideen politika homogenoagoa eta arrazionalagoa ezartzen lagun dezake EAeko administrazioetan.

B. Beraz, administrazioetatik bermatu egin behar dugu funtzionarioek EAeko lanpostu-lehiaketetan esku hartzeko duten eskubidea. Eskubide hori Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 57.2 atalean jasotzen da, eta Euskadiko Auzitegi Nagusiko hainbat epaiek berretsi dute.



Miren Goitia Gabiola
EAEko administrazio-ko
goi mailako teknikaria

A. Administrazioen arteko mugikortasunak gehitu egiten ditu lan-mailaz igotzeko aukerak, hau da, bide ematen du gehiago irabazteko, erantzukizun handiagoa izateko eta baita ezagutzak gaurkotzeko ere. Alde horretatik, bada, benetan positibotzat jotzen dut EAEko administrazio publikoetako funtzionarioek EAEko edozein administrazio publikotan lan egin ahal izatea. Gainera, gauza jakina da mugikortasuna beharrezkoa dela funtzionario onak prestatzeko. Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak berak ere horixe dio, alegia, funtzio publikoaren euskal eredia finkatzeko gakoetako bat mugikortasuna dela.

B. Euskal funtzio publikoaren esparruari begira, adierazi beharra dago ez duela inolako eraginik izango eskubide horren aitortze hutsak, euskal administrazio publikoek euren lanpostu-zerrendetan ez badute berariaz adierazten mugitzeko aukera dagoela. Ez du ondorioz izango funtzionarioek administrazio-karreraren duten aukerei begira, ezta administrazio publikoaren euskal eredia sendotzeari begira ere.

Edonola ere, mugitzeko aukera, berez, motibagarria da funtzionarioa bere maila hobetzen saia dadin, eta, era berean, erakargarria da langile profesional eta kualifikatuak bereganatu nahi dituzten administrazio publikoentzat.

Luis Alba
Funtzio Publikoko sailburordea



A. Funtzio Publikoari buruzko Legearen V. Atalean EAEko administrazio publikoaren arteko funtzionarioen mugikortasuna jasotzen da. Era berean, legearen arabera, mugikortasunak bide ematen du lanpostu lehiaketarako deialdietan esku hartzeko. Eskubide hori lantokiz aldatzeko lehiaketei ezezik, izendapen librekoiei ere badagokie, horrela zehazten baita administrazio bakoitzeko lanpostu-zerrendetan. Administrazioak eskubide horri zer-nolako garrantzia eman dion, legean bertan ikus daiteke.

B. Lantokiz aldatzeko eskubidearen helburua da, nolabait esatearren, funtzionarioek administrazioan egin dezaketen karreraren zati bat definitzea. Nire iritziz, mugikortasunak ondorio onak baino ezin dizkie ekarri administrazioari eta funtzionarioei.



Alberto Makazaga
Arabako Foru Aldundiko
Funtzio Publiko-ko
zuzendaria

A. Nire iritziz, mugikortasuna ona da. Alde positibo gehiago ditu alde negatiboak baino. Gainera, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea horren alde agertzen da. Eztabaida batzuk gora-behera, mugikortasuna onuragarria da bai administrazioarentzat bai herriarentzat. Dena den, legeak orain arte bezala jarraituz gero, arazo larriak sortuko dira bi atalekin: 52. atalarekin, behin-behineko atxikipena dela-eta; eta 67. atalarekin, gainerako administrazio publikoetako zerbitzu egoerari dagokionez.

B. Epaiak sortutako egoera konpontzeko irtenbide bakarra dagoela uste dut: Eusko Legebiltzarrerara jo, eta Legea bi zentzutan aldatu: edo mugikortasunik ez dela egon behar erabaki, edota, bestela, behin-behineko atxikipena ezabatu. Nire ustez, zaila izango da epaia, eta baita legea gaur egun dagoen bezala mantentzea ere. Azken finean, mugikortasunak lan-baldintzen nolabaiteko homogenizazioa ekarriko du Euskal Autonomi Elkartera.



Marta Iglesias Barrio
HAEEko Azterlan eta Argitalpen zerbitzburua

A. Administrazioen arteko mugikortasuna, funtzionarioen eskubidea da. Baina, funtzionarioen eskubide guztiekin gertatzen den legez, lehentasuna izan beharko dute administrazioak eman behar dituen zerbitzuen betebeharek.

Horrela, lanpostu bakoitzaren zereginen arabera neurtu beharko litzateke, lanpostu hori betetzeko administrazioen arteko funtzionarioen mugikortasuna bidezkoa den ala ez. Administrazio bakoitzak ezarri beharko luke zein lanposturi dagokion mugitzeko aukera, beti ere, zereginei begira, eta ez, nor bere etxekoan arrazoigabeko interesei begira.

B. Dena den, orain daukagun araudiarekin, oso zaila da mugikortasunaren arazoan zuzen jokatzeko, administrazioz aldatzen den funtzionarioak administrazio bakoitzarekin dituen eskubide eta betebeharrak ez baitaude behar den bezala zehaztuta. Galdera asko daude erantzuteke: zer gertatuko da administrazioen arteko mugikortasunaren bidez lortutako lanpostua amortizatuz gero? Zer gertatuko da izendapen libreko kasuetan? Nola bermatu behin-behineko atxikipenean dauden funtzionarioek lanpostu bat jabetzan eskuratzea? Zentzat kasutan gertatuko zaie administrazioei lanpostuaren zain dagoen funtzionarioen sariak ordaindu behar izatea lanpostua murriztu ahal izan gabe?... Hori guztia jakitea ezinbestekoa zaigu sistema praktikan jarri aurretik.

Estresa

Estresa gaitz gehien jatorria edo erantzule nagusia dela onartzen da, zuzenean edo zeharka baieztatuta bada ere. Gainera, egoera gero eta okerragoa dela ere esaten dute batzuek, gaur egungo bizitzeko moduak estres handiagoa sortzen duelako. Horrek, gutxika-gutxika, bizitzaren kalitatea gero eta kaxkarragoa izatea dakar. Dena dela, egia al da estresaz esandako guztia? Estresak gero eta okerrago bizitzea ote dakar? Ez.

Gizarteak edo inguruneak inposatzen dizkigun egoeren aurrean, pertsona ez dago inolako defentsarik gabe. Eta irtenbide bakarra ere ez da jasan behar dugunari ahal den neurrian, nola edo hala, aurre egitea.

Pertsonak egoera horietaz jabetu, ulertu eta aurrera egiteko duten modua askoz erabakiorragoa da estresa sortu edo ez sortzeko, egoera bera baino.

Gorputza estresaz baliatzea ez da txarra, berez eta besterik gabe; ez da baztertzekoa eta ezta erabat desagertarazi beharrekoa ere, guztiz kontrakoa baizik. Gorputzak duen baliabide garrantzitsu eta erabilgarrietako bat da, eguneroko bizitzako premiei modu egokiagoan erantzuteko. Estresa gorputzari ohiz kanpoko baliabideak emateko pizten da, egoera korapilatsuetan aurrera egiteko.

Komenigarria da estresarekin zerikusia duten arloak eza-gutzea: nola sortzen den, nola mantentzen den, zerk eraginda agertzen den, zer egin dezakegun egoera aldatzeko... Horiekin batera, estresa eta estresaren ondorio txarrak modu egokian kontrolatzeko trebetasunen berri izatea eta trebetasun horietaz baliatzeko gauza izatea ere garrantzitsua da.

Kontuan eduki behar da estresik ez izateko modu bakarra dagoela: hilda egotea, gordin-gordin esanda. Izan ere, kanpotik datozen pizgarriei (emozioei, gertakariei, e.a.) aurre egiteko, horietaz defendatzeko bideak garatzen ditu gorputzak.

Estres apur bat behar dugu gure iharduera mugiarazteko. Estres mota horri EUTRESA edo estres positiboa deitzen zaio. Baina lanak, gizarteko egoerak, norberarenak, ingurugiroko gorabeherak... tentsio handiegia sortzen badute, gorputzak, beharbada, ez du babesa behar bezala bideratuko, eta hori da, hain juxtu, DISTRESA edo estres negatiboa.

Hans Selye endokrinologo eta Nobel saridunak 1926an erabili zuen «stress» terminoa osasunaren esparruan. Hara definizioa: «ORGANISMOAK EDOZEIN ESKAKIZUNI EMANDAKO ERANTZUN ZEHAZTUGABEA»

**Estresa gorputzari
ohiz kanpoko
baliabideak emateko
pizten da, egoera
korapilatsuetan
aurrera egiteko**

Estresak hiru aldi ditu:

- **Alarma aldia edo aurre egitekoa:** lehen aldi honetan, eragilea agertzen denean, alarmak adrenalina sortarazi, glukosa askatu, odolaren presioak gora egin eta bihotzaren taupadak azkartu eta giharren tonua sendotu egiten da.



- **Erresistentzia edo egokitze aldia:** bigarren aldi honetan, gorputza gertu dago eragile edo erasoari aurre egiteko; estresa neutralizatzeko gauza da gorputza.

- **Gaixotasunaren aldia; gorputzak dituen defentsak ez dira nahikoa:** gorputza ez baldin bada erasoari aurre egiteko gauza, nekatzen hasten da, estimulazio fisiologikoa denbora luzean mantendu behar duelako, eta, azkenean, gaixotu egingo da.

Estresa eragiten duten egoerak

- **Egoera aldatzea edo berria izatea.** Ohiko egoera aldatu egin da. Berria denez, egokitu egin beharko dugu.

- **Informaziorik eza.**

- **Aurrea hartzeko gaitasuna.** Zer gertatuko den zenbateraino jakin dezakegun adierazten du. Gaitasun hori zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta estres handiagoa sortuko da.

- **Zalantza.** Zerbait gertatzeko dagoen aukera da, aurrea hartzeko biderik dugun edo ez alde batera utzita. Zalantza handia bada, beste

horrenbeste gertatuko da estresarekin.

• **Estresa eragiten duen egoera argi ez agertzea.**
Dena delako egoera ebaluatzeko dugun informazioa behar bestekoa edo nahikoa den adierazten du.

• **Estres-eragilea gertatzearen egotea eta zalantza.**
Dena delakoa gertatuko dela dakigunetik benetan gertatzen denera arte pasatutako denbora tartea. Denbora tarte hori zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta handiagoa izango da estresa.

• **Egoerei aurre egiteko eta irtenbideak aurkitzeko trebetasunik eza.**

• **Gorputzaren baldintza biologikoak aldatzea.**

• **Estres-eragileak bere horretan irautea.**

Dauden erreakzio motak

Pertsona bakoitzaren izakerak, hau da, heldutasunak, zein balore dituen, nolako emozioak e.a., buruaren eta gorputzaren osasun egoeraren aldaketetan eragiten du, eta horrekin lotuta, batez ere hiru jarrera-mota daudela esan daiteke, hiru izakera-motaren erakusle:

• A mota:

Oso pertsona irekiak dira, erasokorrak, bat-batekoak eta arlo guztietan gehiegizkoak. Tentsiopean bizi dira beti eta ez dakite lasai egoten. Oso haserre, erdi erotuta jartzen dira, haserrealdia eragiten duena hainbestearainokoa izan gabe ere.

• B mota:

Jarrera orekatua dute, lasaia, eta erasoei aurre egiteko gauza dira. Optimista eta positiboak dira. Estresak ez die arazorik eragiten.

• C mota:

Barnerakoiak eta sentiberak dira. Itxuraz lasai egoten dira, benetan hala ez badaude ere. Isilak izaten dira, ez baitituzte beren emozioak erraz adierazten. Estresarekin arazoak izan ditzakete, eta baita nerbioek eragindako depresioak ere.

Pertsonak berak dituen arazoak eta gizarteak edo familiak eragindakoak alde batera utzita ere, langile guztiek, egunero, lan-munduren presioa jasaten dute, eta ikertzaileek diotenez, lanean, batez ere, estres kronikoa gartzten da, tentsioak luze irauten baitu. Lehenago adierazi dugunez, gorputzak egoera berrietara egokitzeko egiten duen ahalegiaren ondorioa da estresa, eta horrek pertsona orekatua izatea

eskatzen du. Baina horrekin batera, enpresek garbi adierazi beharko lukete langile bakoitzaren eginkizuna zein den; lanpostu batzuetako eginkizunak hain errepikakorrek ez izatea lortu beharko litzateke, lanaldian zehar etenak egitea. Langilearen giza baloreak eta gaitasun profesionala indartu eta lanlekuko baldintzak hobetu egin behar dira.

Zer egin estresari aurre hartzeko eta kontrolatzeko?

• **Zentzunaz baliatu.** Estresari aurre egiteko argiak izan nahi badugu, bizi dugun egoera objektibotasunez aztertu beharko dugu.

• **Eginkizunak programatu.** Bakoitzaren premien eta erritmoen arabera jardun beharko dugu.

• **Neurria hartu.** Egunero ezin dugu berdin jardun, aurrekoan beste egin; ez diezagula ikuspegi orokorra lausotu egunerokotasunak.

• **Ibilaldi luzeetarako gertatu geure burua, ez ziztu batean ibiltzeko.** Ziztu biziak eskatzen duen erritmoa ezin da denbora luzean mantendu.

• **Lankideekin harreman onak izaten saiatu.**

• **Lasaitu.** Lasaitzeko teknikak landu eta ordu beretsuetan oheratzen eta atseden hartzen saiatu.

• **Kirola egin, ez gehiegi ez gutxiegi, edo affizoren bat izan.**

• **Modu orekatuan jan.** Alkohola edo kafea hartu nahiz tabakoa erretzekotan, ez egin gehiegikeriak.

• **Norberaren intimitatea zaindu.** Bizitzaz gozaten lagunduko diguten egintzetan jardun: masa-jea, ibilaldiak, ferekak, musika, iharduera espiritualak,...

• **Nork bere buruari kasu egin.** Ez pentsatu egiterik nahi ez duguna derrigorrez egin behar dugunik. Zenbaitetan, gure iritzia argi adierazi behar dugu.

• **Pentsakera positiboa izan.** Gure buruari, gutxika-gutxika, modu positiboan pentsatzen irakatsi behar diogu. Dena delakoa gertatuta ere, jarrera positiboa izaten ikasi behar dugu.

Estresik ez izateko modu bakarra dago: hilda egotea



Santiago Etxegarai
Administrazio Publikoaren
Arloko aholkulari aditua



Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetu nahian

HAE/IVAP
Gasteiz, 1996
211 or.

1995eko azaroaren 22, 23, eta 24an, hizkera errazteari buruzko nazioarteko jardunaldi batzuk antolatu zituzten HAEek eta Kataluniako eta Galiziako administrazio eskolek Donostiako Miramar jauregian. Jardunaldien helburu nagusienak hiru izan ziren: hizkera errazteko lanetan adituak direnak biltzea, hizkera erraztearen inguruan egindakoa ezagutaraztea, eta administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetzeko bihar-etzi egin litezkeen ekintzak bideratzea eta koordinatzea.

Parte hartzaileei dagokienez, aipatzekoak dira hiru eskoletako ordezkariak eta baita Estatu Batuetatik, Erresuma Batutik, Suediatik, Belgikatik eta Italiatik etorritako aditu ugari ere.

Liburu honetan jardunaldietako hitzaldiak eta ondorioak jasotzen dira. Hitzaldiok jatorrizko hizkuntzan jasota daude, eta jendeari laguntzeko laburpen batzuk ere prestatu dira beste hizkuntza batzuetan. Beraz, guztiz baliagarria izan daiteke argitalpen hau jardunaldietara bertaratu ez zirenentzat, eta gai horren inguruko informazioa nahi dutentzat.

Elhuyar hiztegia

Elhuyar kultur elkartera
Usurbil, 1996
1.388 or.

Hiztegi honen ezaugarriak honako hauek dituzue: lexiko arrunt eta teknikoa (hirurogeita zazpi jakintza-alorretakoa), 85.000 sarrera inguru (euskara-gaztelarako zatiak 44.000 inguru, eta gaztelera-euskarako zatiak 41.000 inguru), 120.000 adiera, 16.000 azpisarrera, 120.000 adibide, esapide eta egitura gramatikalak, eta izen berezien 2.800 sarrera (leku-izenak eta pertsona-izenak).

Hiztegi hau bi urteko lanaren fruitu da, eta oso erabilgarria izan daiteke ikasle, irakasle, itzultzaile, idazle, eta lana euskaraz egin nahi duen edonorentzat. Aipatu behar, baita ere, lan honen zuzendaritza-taldeko kideak Xabier Mendiguren, Miren Azkarate eta Xabier Kintana izan direla.

3000 hiztegia

Bostak Bat
Adorez 7
Bilbo, 1996
1.514 or.

Hiztegi honek 93.000 hitz ditu eta 130.000 adiera. Horretaz gain, zenbait koadro sinoptiko ere baditu irakurlearen lagungarri, eta gramatikako ezaugarri beharrezkoenak biltzen dituzten 72 orrialde.

Lana Bostak Bat taldeak burutu du, eta lehenago argitaratutako liburu gehienek bezala, Adorez sailean du tokia hiztegi honek. Egileek diotenez, hiztegi didaktikoa egin nahi izan dute, eta, hain zuzen ere, irizpide horri eman diote lehentasuna.

Zuzenbide zibila. Zati orokorra (2. argitaraldia)

López, A.; Montés, V.L. (koord.)
Deustuko Unibertsitatea
Bilbo, 1996
700 or.

Zuzenbideko ikasketetan zuzenbide zibilak garrantzi handia duenez, liburu hau egokia izango zaie ikasketa horiek euskaraz egiten ari diren hainbat eta hainbat ikasleri. Era berean, interesgarria izan daiteke Zuzenbide zibilera hurbildu nahi duenarentzat, edo gai hori sakonago jorratu nahi duenarentzat.

Bi arrazoi nagusi izan dira Tirant Lo Blanch argitaletxeak gaztelerez argitaratutako liburua euskaratzeko: alde batetik, lehenik ere ezaguna izatea unibertsitateko eskuliburu moduan; eta, bestetik, egokia izatea Zuzenbideko ikasketa plan berriari begira. Itzulpena Gotzon Lobera eta Andres Urrutiaren gidaritzapean egin da, eta HAEeren laguntza ere izan du.

Administrazio zuzenbidea I. Zati orokorra (7. argitaraldia)

Parada, R.
Deustuko Unibertsitatea
Bilbo, 1996
754 or.

Hona hemen beste aukera bat Zuzenbideko ikasketak euskaraz egiten ari direnentzat, eta gai honetan sakondu edo trebatu nahi dutentzat. Liburu honen jatorrizko bertsioa ere oso erabilia da unibertsitateko ikasleen artean, eta, alegia, horrexek bultzatu ditu Deustuko Unibertsitatekoak liburuaren itzulpena egitera. Itzulpen hori, aurrekoan bezala, Gotzon Lobera eta Andres Urrutiaren zuzendaritzapean egin da, eta HAEeren laguntza izan du. Espero dezagun liburu hau eta aurrekoa lagungarriak izatea euskarak bere tokia izan dezan Zuzenbidearen arloan.

Hitz gezidunak

Espelelo- goen lana	Sortzez	Zaren horrek	Ijitu	Joan zaitez
Ostegun guztietan	Pena- garriak	Ahal genuke	Gutiziak	Rutenioa
▶	▶	▶	▶	▶
Parean jarrita				
Toki honetan				
▶			'Haiz' bo- kalik gabe	Azkenekoa
			Musika nota	Aieru
Eskasiak			▶	▶
(Infin.) Heldu				Nitrogenoa
▶		Ezagutzen zuen		▶
		Bat		
Eguneroko ianaria			(Ipar.) Taldea	
Burdinola			Aldizkari	Kolore ilun
▶		Umegaiaren mintza	▶	▶
		Ez esna		
(neolog.) Berde				Edari nagusia
(Latin.) Landa-				Hebraitar
▶			PNV	▶
			Gizonezko gurasoak	Röntgen
Bi		Karerrape	▶	Amerikako felidoak
Halaz ere		Ukiezin		▶
▶		▶		
			Dauka	
			Suari dario	Modua
Karpo	Katu ume		▶	▶
	Infusio mota			
▶		Lasai		Ez eme
		500		Zero
Ukan	▶			▶
			Bizkaiko ibaia	▶

LUMA

Euskararen inguruko zenbait telefono



- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- EIZIE: 943/42 91 66
- EKB: 943/46 66 50
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/27 82 69
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/681 66 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 07-33-59 93 25 25
- Euskaldunon Egunkaria: 943/37 15 45
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/41 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/18 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailordetza: 945/18 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/18 76 56. Fax: 945/18 76 03
- Kultura Saila: 945/18 94 64
- Nafarroako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusia: 948/10 71 84
- UZEI: 943/47 33 77

Galdetara - sorta

- 1 Nor da Espainiako Kongresuko lehendakaria?
 - A Rodrigo Rato
 - B Federico Trillo
 - C Mariano Rajoy
 - D José Félix Pons
- 2 Koreako enpresa ezagun batek hotzgailuak egiteko lantegia eraikiko du Gasteizen. Zein da?
 - A Hyundai
 - B Toyota
 - C Daewoo
 - D Fujitsu
- 3 Substantzia hauetako bat ez du giza gorputzak sortzen
 - A Insulina
 - B Adrenalina
 - C Bilis
 - D Vitamina C
- 4 Nork du dipsomania?
 - A Balio gutxiko gauzak lapurtzen dituenak
 - B Behin eta berriz eskuak garbitzen dituenak
 - C Alkohol gehiegi edaten duenak
 - D Txakurrei izugarritzko beldurra dienak
- 5 Non dago Ufizzitarren jauregi ospetsua?
 - A Florentzian
 - B Erroman
 - C Venezian
 - D Milanen
- 6 Zenbat kilometro karratu dauka, gutxi gorabehera, Euskal Herriak (Hegoaldea eta Iparraldea barne)?
 - A 21.000 km²
 - B 10.000 km²
 - C 16.000 km²
 - D 30.000 km²
- 7 Non jaio zen Maurice Ravel?
 - A Donibane-Lohitzunen
 - B Senperen
 - C Bidarten
 - D Ziburun
- 8 Liburu hauetatik zein ez zuen idatzi Mikel Zarak?
 - A Haurgintza minetan
 - B Hiltzaile baten bila
 - C Ipuin antzeko alegi mingotsa
 - D Higidura berdez
- 9 Zenbat aurpegi ditu ikosaedroak?
 - A 20
 - B 15
 - C 8
 - D 9
- 10 Zer da lupua?
 - A Otsoa zenbait tokitan
 - B Garagardoaren osagaietako bat
 - C Arrabioa bizkaieraz
 - D Lupa mota bat

G o i t i b e h e r a

Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondorengo hitzaren anagrama da. Zer da anagrama bat? Hitz baten letrak beste era batera ordenatu ondoren lorturiko hitza: *naiz/zain/zina*.



1. Ahalmen. 2. Lantegi bateko burua.
3. Hego Ameriketako errepublika. 4. Alperra.
5. Anaia, hitz elkarketan.
6. Gipuzkoako herria. 7. Putrea. 8. Saiakera. 9. Eria.
10. Goizeko otordua. 11. Eguraldi bero itogarria, sapa.

1. Landare mota. 2. Zuberoan, ibaia. 3. Harria. 4. Igarlea.
5. Guraso arra. 6. Gipuzkoako herria.
7. Hitzaldi, idazlan eta gisakoen mamia. 8. Labore mota.
9. Oparoa. 10. Arabako herria.
11. Itsasuntzien higitzea eragozten duten burdinazko pieza handiak.

S o l u z i o a k

G o i t i b e h e r a


0B/0C/0D/0E/0A/0A/0B/0B/0A/0C

Galdera - sorta

Hitz gezidunak

Z

aho aho
belaune belaun



M

endeetan zehar, euskara ahoz aho heldu zaigu, belaunez belau. Familia eta auzoa izan dira, hortaz, euskararen jarraipenaren oinarriak. Baina, azken hamarkadetan, euskarak lortu dituen hiztun berriak eskolari zor zaizkio, batez ere. Beraz, familia eta eskola, biak, ezinbestekoak ditugu gaur euskararen biziraupena eta normalizazioa bermatzeko.

Bestalde, euskararen erabilera normaltzeko urrats handiak eman dira. Hortxe ditugu, esate baterako, euskarazko prentsa idatzian, literaturan, irradian, telebistan eta teknologia berrietan eginiko aurrerapenak. Alabaina, gurasoek seme-alabei euskaraz hitz egitea da haur, eta gazteek euskaraz hitz egiteko bide egoki, seguru eta merkeena, gurasoen egiteko ezin baita ordezkatu -ezta hizkuntza kontuetan ere-. Eta, horixe da, hain zuzen Ahoz aho, belaunez belau kanpainak erakutsi nahi duena.

Kanpainan, erakusketa ibiltari honetaz gain, hitzaldiak, gurasoek seme-alabekin batera eginiko antzerkiak, eta aiton-amonen eguna izango ditugu, besteak beste. Gainera zuretzat propio prestatutako hainbat irakurgai ere eskainiko dizkizugu, zeure etxera eraman ditzazun.



Kalitatezko hizkeraren aldeko borroka ez da bakarrik gurea



Jakin ezazu zertan ari den ahalegin hau mundu guztian.

Eskabideak:

IVAP

Argitalpen Zerbitzua
Unibertsitateko Enparantza
20560 Oñati-Gipuzkoa
Tlf. (943) 78 20 00
Fax: (943) 78 31 77

Gauza jakina da orain dela hiru hilabete kezka bat sortu zela Arrietako Udaletxean; alegia, Javier Martínez de Ganboa zinegotzia 1996ko martxoaren 8ko bilkuran arduratuta azaldu zen udal horretako zenbait langile azken aldian egiten ari ziren kritikak zirela-eta. Kexu horiek gero eta ugariagoak zirenez eta herritar ugari jakinaren gainean zegoenez, Gobernu batzordeak txosten bat egiteko eskatu zigun, langileak beren eguneroko jardunean zenbateraino dauden pozik neurtu ahal izateko (ikus 1. eraskina).

Udal-langileei apirilean eta maiatzean egin zaizkien inkestean arabera (ikus 2. eraskina), badirudi, oro har, langile horiek ez daudela gustura lanean; eta horrek badu eraginik, zalantzarik gabe, bai beraien jarrerari bai lantokian lortutako emaitzetan.

Zehatz-mehatz esan dezakegu langileen %70ek argi eta garbi adierazi duela nahigabeturik dagoela, eta haserre horrek ez duela zerikusirik soldatarekin, lanpostua hartzeaz bat ongi asko baitzekiten zenbat irabaziko zuten. Arazoak bestelakoak dira (ikus 3. eraskina).

Antza denez, langileek ez dute ezagutzen erakundearen jardura orokorra, eta, behin baino gehiagotan, herritar askok baino informazio gutxiago daukate udalaren funtzionamenduari buruz. Gure ustez, udalak *Argibideetarako Boletina* izeneko argitalpena sortzea bide bat izan daiteke arazo hori konpontzeko. Beste alde batetik, inkestetan adierazi dutenez, udal-langileek aukera gutxi dute lanpostu batetik bestera mugitzeko, eta are gutxiago maila handiagoko lanpostu bat eskuratzeko.

Horretaz gain, udal-langileek salatzen dute hainbat arlotan ez zaiela eskaintzen behar bezalako prestakuntzarik. Horretarako irtenbidea garbi dago: prestakuntzako ekintzak ugaritzea. Bukatzeko, esan egin behar da langile askok adierazten duela inguruan dituzten altzariak (aulkiak, mahaiak, argiak...) ez direla erosoak, eta hori oztopo eta traba bihurtzen dela lana aurrera ateratzeko.

Emaitza hauen guztien arabera, ondorengo proposatzen dugu (ikus 4. eraskina): alde batetik, funtzionarioen barne-igoera edo promozioa ziurtatzen dituzten neurriak aztertzea; eta, bestetik, behar beste aldaketa egitea langileen altzariak eta materialak erosoagoak izan daitezen.

Bukatu aurretik, aipatu, Langileen Kudeaketarako Zerbitzuak ITAUNSA inkestazailen-entresaren laguntza izan duela ikerketa hau egiteko orduan. Enpresa horretako adituek erabilitako metodologia langileei egindako elkarrizketetan oinarritu da; eta, hain zuzen ere, ikerketa horren emaitza nagusiak izan dira txosten honetan labur-labur azaldu ditudanak.

Espero dezagun Gobernu batzordeak aintzat hartzea txosten honetako ondorioak, eta behar diren neurriak ahalik eta lasterren hartzea langileen egoera eta jarrera hobetzeko.

Ixabel Durana
Langileen Kudeaketarako zerbitzuburua

Arrieta, 1996ko uztailaren 12a

A R I K E T A K

A D M I N I S T R A Z I O I D A Z K I A K

① Irakurri arretaz aurreko txostena, eta egin ezazu kontu txosten «klasiko» eta luze baten azala asmatu behar duzula. Horrenbestez, egin azal hori, kontuan izanik ondoko hauek jaso behar dituzula: erakundearen izena, txostenaren izenburua, txostengilea (zerbitzu edo saila) eta toki-egunak.



② Egin ezazu txostenaren laburpena, gehienez ere, lauzpabost lerro idatziz.

Laburpena:

.....
.....
.....
.....
.....
.....

③ Segur aski ikusi duzu ikerketaren inguruko datu batzuk (inkesta, metodologia, inkestatzaileak) elkarrengandik urrun daudela. Lotu ezazu informazio hori guztia lerroalde bakarrean.

.....
.....
.....
.....

④ Konturatuko zinen, halaber, langileek adierazitako arazoak, eta txostengileak proposatzen dituen irtenbideak, batzutan, nahasian ematen direla. Hori zuzentzeko, idatzi bi ataletan bai batzuk eta bai besteak.

Arazoak:

-
-
-
-

Irtenbideak:

-
-
-
-

5 Gramatika

Itzuli gaztelerazko esaldi hauek erlatibozkorik erabili gabe.

a.- Esta es la oficina en la que he escrito todos estos informes.

.....

b.- Fue el director quien me dió permiso para asistir al cursillo.

.....

c.- El alcalde, que estaba pronunciando un magnífico discurso, sufrió un mareo y perdió el conocimiento.

.....

.....

d.- Este Ayuntamiento, por el que el señor Gaztañaga ha dado los mejores años de su vida, no ha reconocido sus méritos.

.....

.....

e.- En caso de enfermedad de algun miembro del tribunal, quien sea suplente desempeñará sus funciones.

.....

.....

S O L U Z I O A K

Oh.: kontuan izan zuk asmatutako soluzioak gureak baino dexente hobeak izan daitezkeela. Ez larritu, hortaz, bete-betea gurekin bat ez bazatoz.

1

Arrietako udala

Udal-langileak gustura
dauden neurtzeko inkesta

Ixabel Durana
Langileen Kudeaketarako zerbitziburua
Arrieta, 1996ko uztailearen 12a

2

Laburpena:

Udal-langileen artean egindako inkestaren arabera, %70 ez dago pozik hainbat arrazoi direla-eta: ez dute ez informaziorik, ez lanpostu hobe lortzeko aukerarik, ez prestakuntza nahikorik, ezta altzari erosorik ere. Arazo horiek konpontzeko Gobernu batzordeari proposatzen zaio *Argibideetarako Boletina* argitaratzen hastea, barne-promoziorako neurriak hartzea, prestakuntzako ekintzak ugartzea eta altzari erosoagoak erostea.

3

Langileen Kudeaketarako Zerbitzuak ITAUNSA inkestatzaile-entresaren laguntza izan du ikerketa hau egiteko orduan. Enpresa horretako adituek erabilitako metodologia langileei egindako elkarrizketetan onarritu da; eta, hain zuzen ere, ikerketa horren emaitza nagusiak dira txosten honetan labur-labur azalduko ditudanak. Udal-langileei apirilean eta maiatzean egin zaizkien inkesten arabera (ikus 2. eraskina), badirudi, oro har, langile horiek ez daudela gustora lanean; eta horrek badu eraginik, zalantzarik gabe, bai beraien jarreran bai lantokian lortutako emaitzetan.

4

Arazoak:

- Langileek ez dute ezagutzen beren erakundearen jardura orokorra.
- Aukera gutxi dute lanpostu batetik bestera mugitzeko, eta are gutxiago maila handiagoko lanpostu bat eskuratzeko.
- Hainbat arlotan ez zaie eskaintzen behar bezalako prestakuntzarik.
- Beren altzariak (aulkiak, mahaia, argiak...) ez dira erosoak.

Irtenbideak:

- Udalak *Argibideetarako Boletina* izeneko argitalpena sortzea.
- Langileen barne-igoera edo promozioa ziurtatzen dituzten neurriak aztertzea.
- Prestakuntzako ekintzak ugartzea.
- Behar beste aldatuta egitea langileen altzariak eta materialak erosoagoak izan daitezen.

5

- a.- Txosten hauek guztiak bulego honetantxe idatzi ditut.
- b.- Zuzendariak berak eman zidan baimena ikastarora joateko.
- c.- Alkatea, hitzaldi zoragarria ematen ari zela, zorabiatu eta konortea galdu zuen/Alkatea zorabiatu eta konortea galdu zuen, hitzaldi zoragarria ematen ari zenean.
- d.- Udalak ez ditu aintzak hartu Gaztañaga jaunaren merezimenduak, erakunde honen alde bere onenak eman baditu ere.
- e.- Mahaikideren bat gaixorik badago, ordekoak beteko ditu haren eginkizunak.